

#58 / 2025 OTSAILA

arteka

ALEMANIA
KRISIAN

GEDAR

Gaur-gaurkoz iraultza sozialistaren nazioarteko prozesu bat berriz irekitzeko European existitzen diren baldintzak beste nonbait bilatu beharko lirateke Europako krisia jada errealitate bat ez balitz eta politikaren, subjektuaren eta gizarte kohesioaren arloko krisi bat ez balitz. Autoritarismoaren olatu berriak –Trump buru dela eta eskuin muturra haren esanetara dagoela– egoera horri egin nahi dio aurre eta, horretarako, tentsio belikoko egoera bat sortzen du, europar kontinentean gerra zibil latente gisa azaleratzen dena. Proletariotzak prest egon behar du haiei aurre egiteko

Edukia

6

10

30

40

44

56

EDITORIALA

Arteka

Krisia Europan

**HISTORIA
ERREPORTAJEA**

Pablo Ruiz

**Zeitenwende: Alemaniaren
mirari ekonomikoaren
goraldia eta gainbehera**

KOLABORAZIOA

Mikel Bartolome

**Alemaniako krisia
bere testuinguruan**

IRITZIA

Pablo Ruiz

Eta orain zer?

KOLABORAZIOA

Eneko Carrión

**Zeitenwende: kate motzean
lotuta**

KOLABORAZIOA

Lander Lejarza

**Industria itxierak eta
sindikalismoa**

Krisia Europar

Editoriala

Egun gutxi dira Ukrainako gerra bukaraztea helburu duen negoziazio prozesu baten hasieraren berri izan genuela. Errusiak eta Estatu Batuek hartzen dute parte prozesu horretan. Horrek berehala piztu zituen Europako alarmak. Ukrainarrek protesta egin zuten. Nola zen posible negoziazio prozesu bat abiaraztea bertatik kanpo utzita gatazkako eragile nagusietako bat –Europar Batasuna– eta gerra gertatzen den eta hari izena ematen dion herrialdea?

Hiru hilabete eskas igaro dira Trumpek AEBko hauteskundeak irabazi zituenetik Estatu Batuak berri handi egiteko helburu ezagunarekin. Helburu horren oinarria ekonomikoa bada ere, auzi politikoa da nagusiki: xedea da ekimena eta lidergoa berreskuratzea, Kapitalak proletariotzaren gainean duen autoritatea mundu mailan berrezartzea, bai eta burgesiaren diktadura berreratzea ere, krisiak, dekadentziak eta mundu guztian baina, bereziki, desegite egoera aurreratuan dagoen Europa zaharrean latente dagoen gerra zibilak karakterizatutako garaietara egokituta.

Ziurrenik, Kapitalak bizirauteko ezartzen dituen neurri desesperatuak ez dira gai izango aurrera egingen duen krisi globalari erantzuteko; are gehiago, neurri horiek sakondu eta larriagotu egingo dute krisi hori, gerraren eta suntsipen totalaren norabidean edo, behintzat, hainbat hamarkada iraungo duen gatazka zibil baten norabidean, basakeria etengabea, zeina jada agertzen ari den: gerra immigrantei, eskuin muturreko nazionalismoak, irabazitako eskubideen suntsipena, proletariotzaren kriminalizazioa eta miseria, jabe kapitalisten eskubideak defendatzeko antolatuta dauden bandak kaleetan... Eta hori guztia kapital finantzarioaren kontrako diskurtso ezagunarekin. Diskurtso horren arabera, kapital finantzarioak sistema ekonomikoaren eta gizartearen usteltzea irudikatzen du, eta gizarteak arazo handirik gabe egingo luke aurrera bankari talde baten bulegoetan diseinatutako plan konspiranoiko eta makiabelikoagatik ez balitz.

Egoera horretan, Kapitalak lemazain handi bat behar du, diktadore ahalguztidun bat, zeinak konfiantza inspiratuko duen eta ez dien beldurrik izango ezbarrei, ez eta onarpen handia duten eta giza eskubide besterenezin eta urraezinak jasotzen dituzten gutun gisa agertzen diren dokumentuetan ofizializatutako konbentzioak suntsitzeari ere.

Trump ikusi dugu eskubide unibertsalei erreferentzia egiten dieten dekretuak abolitzen presidente izendatu zuten egunean bertan, herrialde osoak erreklamatzeko, beste herrialde batzuen jabetzakoak diren lurraldeak erreklamatzeko, Espainia BRICS taldeko herrialdea dela adierazten eta, azkenik, Ukrainako gerra bukarazteko elkarrizketak martxan jartzen bere bazkide nagusiarekin kontatu gabe, Europar Batasunarekin alegia. Batzuek usteko dute zoro hutsa dela, batzuek usteko dute arantzelak eta protekzionismoa neurri ekonomiko desesperatuak direla eta ezingo dutela AEBren egoera irauli. Eta ziurrenik hala izango da, eta Trumpek badaki hori. Alabaina, autoritarismo politikoa eta lidergo irmoa lehen mailako potentzia ekonomikoa dira. Ondorioz, dominazio politikoa berrezartzea Kapitalaren lehen helburua da gaur egun; hala izan zen, halaber, II. Mundu Gerra aurreko urteetan. Izan ere, horrek tentsio klima berri bat sortuko du, aukera emango duena langile klasea eraginkortasun handiagoz subordinatzeko Kapitalaren beharrezan objektiboetara.

Xedea da ekimena eta lidergoa berreskuratzea, Kapitalak proletariotzaren gainean duen autoritatea mundu mailan berrezartzea, bai eta burgesiaren diktadura berreratzea ere, krisiak, dekadentziak eta mundu guztian baina, bereziki, desegite egoera aurreratuan dagoen Europa zaharrea latente dagoen gerra zibilak karakterizatutako garaietara egokituta

Elon Musken agur naziak egoera hori iradokitzen du. Hura Alemaniako AfD alderdiaren mitinean agertzeak eta Trumpen Gobernuak eskuin muturra babesteak honako oinarri hau dute: gaur-gaurkoz Alemaniak eta, berekin, Europa osoak galdua duen lidergo irmoa berrezartzeko beharra. Beste hitz batzuekin esateko: egun, Kapitalak bada-ki bizirauteko bidea autoritarismoa, diktadura eta nazismoa berrezartzea dela –gogoan izanda nazismoa inoiz ez zela botere egituretatik atera, NATOtik atera, nahiz eta identitate krisi batean dagoen, bere esentzia bera ezkututzen saiatzeagatik-. Finean, Kapitalaren irtenbidea bere egiazko izatea argitara ateratzea da: planeta osoko langile klasearen aurka doan diktadura autoritarioa.

Europar Batasuna Ukrainako gerraren gaineko negoziazioetatik kanpo uztea yankien aurrerapauso autoritarioen adierazgarri da. NATO berreratuko bada, estatubatuarren dominazio berrituaren pean izango da, eta dominazio hori Europan ere gauzatu da, eskuin muturreko gobernu txotxongiloen bitartez, zeinak, atzo bezala gaur, Kapitalaren interesei eta haren burdinazko eskuari men egingo dioten, nahiz eta haren aurkari gisa aurkezten duten beren burua.

Europa suntsitzen ari den krisia ez da Alemaniatik hedatzen ari den krisi ekonomiko soil. Egia da hori dela subjektibitate politiko dominantea amatzaren azken eragilea, baina, nolabait, eta konbentzio ekonomizista ororen kontra, gure ahaleginak krisi politikoa –lidergo krisia– Europako krisi ekonomikoaren benetako eragile gisa ulertze- ra bideratu beharko genituzke. Ez zientifikoki frogatu daitezkeen fundamentu bat delako –izan ere, itxuraz tradizio marxistaren kontra egon liteke, nahiz eta benetan horrela ez izan–, baizik eta Kapitala espekulazio eta espermentazio politikoan murgilduta dagoelako, eta murgiltze horrek eta diktaduren eta nazismoaren gorakadaren historiak erakusten digutelako agortzen den azken gauza Kapitalaren subjektibitate politikoa dela, hau da, Kapitalaren bulkada autoritario, gerrazale eta inperialista; milioika pertsonaren bizitzaren gainetik bizirauten du, pilatutako hondakinen eta gorpuen gainetik, baita guztia galduta dagoenean ere, Kapitalaren krisi ekonomikotik ateratzeko modurik ez dagoenean ere.

***Kapitalak lemazain
handi bat behar du,
diktadore ahalguztidun
bat, zeinak konfiantza
inspiratuko duen
eta ez dien beldurrik
izango ezbeharrei, ez
eta onarpen handia
duten eta giza eskubide
besterenezin eta
urraezinak jasotzen
dituzten gutun
gisa agertzen diren
dokumentuetan
ofizializatutako
konbentzioak
suntsitzeari ere***

Europar Batasuna Ukrainako gerraren gaineko negoziatioetatik kanpo uztea yankien aurrerapauso autoritarioen adierazgarri da. NATO berreratuko bada, estatubatuarren dominazio berrituaren pean izango da, eta dominazio hori Europan ere gauzatuko da, eskuin muturreko gobernu txotxongiloen bitartez, zeinak, atzo bezala gaur, Kapitalaren interesei eta haren burdinazko eskuari men egingo dioten, nahiz eta haren aurkari gisa aurkezten duten beren burua

Krisi ekonomikoa bada ere burgesiaren autoritate politikoa berritzeko leitmotiva eta autoritarismoaren eta diktaduraren norabidean mugitzeko pizgarria, autoritarismoa ez da subordinatu soil gisa agertzen, krisi ekonomikoa gainditzeko indar nagusi gisa baizik. Hori oso garrantzitsua da; izan ere, termino abstraktuetan, ekoizpena berriz martxan jartzeko gainbalio nahikoa ekoizteko ezintasunean datza Kapitalaren krisia. Termino zehatzetan, baina, botere politikoaren blokeak, inperialisten blokeak, lehian ari dira irabazia berenganatzeko, eta kapitalismoak bere burua krisi egoeran dagoela ulertzen du lidergoa galtzen duen heinean; hau da, herrialde inperialista dominatzaileen bidez irabazien zati handiagoaz jabetzeko helburuarekin politikoki jarduteko gaitasuna galtzen duen heinean. Europako krisiari buruz hitz egiten dugunean, ezinbestekoa da

konsiderazio hori aintzat hartzea; izan ere, Europa modu autoritarioan erantzuten ari da, eskuin muturra hazten ari da, krisi hori ez baita termino absolutuetan ulertzen –burgesia ez da gai krisia termino horietan ulertzeko, horrek bere suntsipena lekarkeelako–, hots, metaketa-krisi gisa, baizik eta termino erlatiboetan ulertzen da, herrialde pobreak mendean izateko gaitasunaren galera gisa edo EBko kide diren herrialdeei arau komun batzuk ezartzeko ezintasun gisa.

Bestela, Europaren krisia ez litzateke kategoria baliaduna izango Kapitalaren krisia Europa mailan azaleratzeko modu zehatz eta espezifikoa gisa. Hala-ber, gaur-gaurkoz iraultza sozialistaren nazioarteko prozesu bat berriz irekitzeko Europan existitzen diren baldintzak beste nonbait bilatu beharko lirateke Europako krisia jada errealitate bat ez balitz eta politikaren, subjektuaren eta gizarte kohesioaren arloko krisi bat ez balitz. Autoritarismoaren olatu berriak –Trump buru dela eta eskuin muturra haren esanetara dagoela– egoera horri egin nahi dio aurre eta, horretarako, tentsio belikoko egoera bat sortzen du, europar kontinentean gerra zibil latente gisa azaleratzen dena. Proletariotzak prest egon behar du haiei aurre egiteko. ●

HISTORIA
ERREPORTAJEA

Zeitenwende: Alemaniaren mirari ekonomikoaren goraldia eta gainbehera

*

Pablo Ruiz





Olaf Scholzek *Zeitenwende* hitza bost aldiz ere erabili zuen 2022ko otsailaren 27an Bundestag-aren aurrean egin zuen hitz-hartzean. Ia hiru egunez prestatzen ibili ostean, nazioari mintzatu zitzaion belatz sozialdemokrata zaharra, eta sutsu eta irmo salatu zuen Errusiak Ukraina inbaditu izana. Scholzek egiazko *Zeitenwende* baten promesa egin zuen, hau da, garai-aldaketa batena, non Alemaniak Berlin-Mosku ardatza utzi eta Washington eta Bruselari baldintzarik gabe leial izatea zin egingo duen. Akaso arraroa irudituko zaie errusiarrengan eta mendebaldetarrengan zintzoak eta gaiztoak, gaiztoak eta zintzoak ikusten dituzten horiei, baina haien arteko harremanak ezin estuagoak izan dira duela gutxi arte. Baita Errusiak Estatu Batuekin dituenak ere. Baina bereziki Alemaniaren eta Errusiaren artekoak. Mendebaldearen eta Errusiaren arteko harremana da geopolitikaren munduan nagusi den oportunistoaren adibiderik argienetakoa.

Munduko merkatuan, harreman ekonomikoak bezain indartsuak dira harreman horiei eusten dieten adiskidetasun-harremanak. Kontzientzia kapitalistak errealitateari aurre egiteko duen beste forma fetixistetako bat da esatea geopolitikan modu autonomoan ebazten direla estatuen interes hertsiki politikoak –edozein dela ere haien eskala geografikoa–. Errealitatea, ordea, bestelakoa da: nazioarteko analisirako egon daitekeen iruzurrik handiena da ekonomia eta politika elkarrengandik bereiztea. Metodo marxistaren eta historiaren ulerkera marxistaren giltzarrietako bat da interes ekonomikoek interes ekonomikoek gainetik duten nagusitasuna. Hain justu, nazioarteko politikaren arloan horrekegi agintzen du oportunistoak. Potentziek ordezkatzeko dituzten oligarkien interes ekonomikoek araberakoak dira potentzien arteko nazioarteko gatazkak, aliantzak eta bat-egiteak. Ikuspuntu horretatik, estatu sozialistarik egon ezean, ez du zentzurik bloke antiinperialisten ideiak. Funtsean, potentzia ekonomiko guztiak berdin dira kapitalistak. Esentzia kapitalista hori azalertzeko forma aldakorra da faktore batzuen arabera (kultura, erlijioa, demografia, klima, orografia eta historia), eta argi dago faktore horiek guztiak elkarrekin hartuta bakarrik uler daitekeela potentzia bakoitza nola txertatzen den lanaren nazioarteko banaketan.

Ordea, garrantzitsuena zera da: ulertzea potentzia kapitalisten ekintzak metaketa-prozesu nazionalen sustapenak gidatzen dituela, hau da, haiek ordezkatzeko dituzten oligarkia-taldeen interes ekonomikoak, eta ez beste ezerk. Mundu honetako justizia, senidetasuna eta aurrerabidea langileen ekintza politiko iraultzailearen fruitu dira, oro har. Oportunistoa, hortaz, potentzia kapitalisten arteko harremanen forma naturala da. Ideia hori buruan izateak berebiziko garrantzia dauka; izan ere, Brutok Julio Zesarri dion leialtasuna bezain ahula da burgesiaren interes ekonomikoek mende dagoen oro. Oligarkiarengat, edozein nazioarteko dela ere, baliteke gaur laguna den hori etsaia izatea bihar.

Bismarcken agintaritzak uzkur eta beldurgarria eta hark sozialismoaren kontra gauzatu zuen borrokan eraiki zen Alemania. Lubakiek eta Mauser 98aren zaratak lurperatu egin zuten Gerra Handian eta iraultzan zehar. Alemaniako klase jabeak nazioaren besoetara jaurti zuen beren burua. Gero, bereizita berpiztu zen errautsetatik, eta harresia erori ondoren bateratu zen. Geroztik, bazirudien *Alemaniako mirari ekonomiko* deiturikoak egonkortasunerako zina egiten ziola historiak garaitutako herrialde bati, baina orain beste *Zeitenwende* batean gaude. Baina ez preseski Scholzek eman dion zentzuan.



Olaf Scholz, SDF alderdiko kide eta Alemaniako kantzilerra 2021-2025 artean.

Potentziek ordezkutzen dituzten oligarkien interes ekonomikoen araberakoak dira potentzien arteko nazioarteko gatazkak, aliantzak eta bat-egiteak. Ikuspuntu horretatik, estatu sozialistarik egon ezean, ez du zentzurik bloke antiinperialisten ideiak



Alemaniko oligarkiaren interes ekonomikoen eta Alemaniko Estatu partaide den aliantzen (EB, NATO) arteko kontraesana da koloso industrialak garaiotan izaten ari den erronkarik handiena

Alemania potentzia kapitalista den neurrian, oportunistoa elementu giltzarria da haren historia berriena ulertzeko. Scholz kantzilerrak behala abandonatu zuen otsailaren 27ko diskurtso proatlantistaren solemnitatea. Diskurtso hartan, mintzagai izan zuen garrantzi historiko agerikoa duen une bat *-Zeitenwende* bat-, Alemania zibilizazioaren, balioen eta Mendebaldearen interesen gortorleku moduan finkatzen zuena. Urte bat geroago, Alemania izan zen Txinako oligarkiari muga-zergak aplikatzearen kontra bozkatu zuen herrialde bakarra.






Epe laburreko *Zeitenwende* hori aise ulertzen da Alemaniako automobilgintza-industriaren emaitzen kontuak ikusita. Europak Txinan duen enplegatzaile nagusia da Volkswagen, eta herrialde horretan saltzen du ekoizpenaren herena baino gehiago; beraz, Txinaren eta Alemaniaren arteko harreman diplomatikoa izango da, ziurrenik, Volkswagen Taldearen lehia-abantaila garrantzitsuena. Gainera, muga-zergen eraginez, garestitu egiten dira Txinaren esportazioak; horren adibide da marka horrek ekoizpen kostuen azpitik saldu beharra Tavascan kirol-ibilgailu utilitario elektrikoa. BMW eta Mercedes enpresak –intentsitate txikiago edo handiago batean eta ñabardurak ñabadura– egoera berean daude. Ekoizle alemaniarrentzat Txina da merkaturik garrantzitsuena, ez Alemania. Salmenta-lurraldea, ekoizpen-eremua eta teknologia-hornitzailea da Txina. Hori dela eta, Olaf Scholz –Txinaren aldeko fakzioa gidatzen du SPD alderdiaren barruan– gobernatzaile ikaragarri erabilgarria izan da Alemaniako oligarkiarentzat, eta hala da oraindik ere; hain justu, oligarkia horrek bedeinkapena eman zion Hamburgeko alkate zenean, eta kantziler izan arte bultzatu du.

Hain justu, Scholzek Hamburgeko alkate kargua hartu zuenean, 2011n, Shanghaira eta Pekinera egin zituen besteak beste lehenengo bisitak, eta, jakina, ingurune horretako oligarka industrial garrantzitsuenak izan zituen aldamenean. Txinaren eta Alemaniaren arteko harreman biziak Scholz oportunista profesional gisa maniobratzera behartzen du, bai eta Alemaniaren posizioa orekatzera ere, politikoki mendebaldetarra izanagatik ekoizpenean ekialdetarra den neurrian. Horra hor egiazko *Zeitenwendea*: Alemaniako kapitalismoa bere barne mugak jotzen ari da, alegia, globalizazio neoliberalaren muga horiexek berberak. Alemaniako oligarkiaren interes ekonomikoen eta Alemaniako Estatu partaide den aliantzen (EB, NATO) arteko kontraesana da koloso industrialia garaiotan izaten ari den erronkarik handiena.

Ordea, Scholz engranaje bat besterik ez da gaur egungo Alemaniaren erritmoa markatzen duen dinamika oportunista baten barrenean. Artikulu honetan aztergai izango dugu *Alemaniaren mirari ekonomiko* izenekoak nola konbinatzen duen nazioarteko lehia ekonomikoaren ondorioz agortzen ari den eredu industrial bat eta oportunismo politikoa, Errusiak Ukraina inbaditu zuenetik bor-borka dagoena.



“ALEMANIAREN MIRARI EKONOMIKOA”

Alemaniarren mirari ekonomikoaren jatorria gerraosteko Alemanian dago, zehazki kapitalismo ordoliberallean, zeinak Alemaniako Errepublika Federalean (AEF) hartu baitzuen forma politikoa, Konrad Adenauer-en agintaldian. Herrialdea atzeritarren okupazioaren pean eta gainbeheran zegoen une hartan, Monnet eta Schuman frantziarrak ari ziren gidatzen Europako integrazio-prozesu hasiberria. Bi oligarkiek siderurgiaren sektoreko *pax* ekonomikoa sinatzeko balio izan zuen Ikatzaren eta Altzairuaren Europako Erkidegoak; alemaniarren bermilitarizazio autonomorako aukerarekin lotura estua zuen *pax* horretan, Alemania nabarmen lehia-korragoa zen. Trukean, Mendebaldeko Alemaniako –suntsitua zuen gerrak, eta, gogora dezagun, baita mugaren beste aldeko komunismo antolatua ere– merkatu egonkor eta kooperatibo baterako sarbidea izango zuen, zeina erraz bete baitzitekeen *made in Germany* produktuekin. Mendebaldeko Alemaniarentzat, Europaren integrazio-prozesua salbagueardia ekonomikoa izan zen alde batetik (eta, harekin batera, baita Marshall Plana ere, haren onuradun nagusia izan baitzen AEF) eta, beste alde batetik, baita salbagueardia politiko-militarra ere; izan ere, sakondu egiten zuen nazioarteko aitortpena Alemaniako Errepublika Demokratikoari (AED) baino lehenago Alemaniako Errepublika Federalari (AEF) emateko prozesuan, eta Adenauerrek helburu zuen “normaltasun natoista” horretara hurbilazaitzen baitzuen AEF –bide batez, normaltasun hori ezinbesteko baldintza zen herrialdea atzerriko indarrez desmilitarizatzen–.

Nahiz eta Alemaniako historian aurrekaririk gabeko zientzialari-ihesa eragin zuen nazismoak, mekanikaren eta kimikaren sektoreak hazkunde handia izan zuten, begi-bistako arrazoiengatik asko sustatu baitzituen erregimenak. Besteak beste BASF, Bayer eta Hoechst enpresen bueltan antolatuta zegoen oligarkia lankidetzat estuan aritu zen industria-eredu alemaniarren txapeldunekin, hala nola Mercedes, BMW eta Volkswagenekin. Azken hori erreferentziazko auto-ekoizlea izan zen Alemania nazian. Volkswagenek hain garrantzi eta botere handia zuen Alemanian, ezen AEDren lurretan ere ekoizten baitzuen. Pixkanaka-pixkanaka, Mendebaldeko Alemaniak bere lekua egin zuen munduko merkatuan, potentzia industrial lider bilakatu zen zenbait sektoretan, Alemaniaren historian inoiz izandako hazkunde-tasa handienak izan zituen eta esportazio-eredu arrakastatsua finkatu zuen.

Errebisionismo historikoa litzateke *Alemaniarren mirari ekonomikoa* hauetatik bereiztea: gerraosteko konstituzionalismo liberalak ekarri zuen atzerapen politikoa, koadro naziak Mendebaldeko Alemaniako Estatuan integratzea eta komunismoa legez kanpo uztea. Gogoratu falazia baten arabera Weimarren garaiko gehiegikeria demokratikoei eman ziotela bide Hitlerren goraldiari, eta falazia hori erabili izan zela Weimarren Errepublikakoa baino demokrazia gutxiagoko konstituzio-esparru bat sortzea justifikatzeko; esparru horretan, botere ugari gobernuari eta epaileei eman zitzaizkien parlamentuaren kaltetan, eta erregimen liberal-parlamentario burgesaren kontrako ideiak publikoki adierazi eta defenditzea zuzenean debekatuta zegoen eredu liberal militante bat ezarri zen. Alemaniako klase kapitalistak beti konbinatu zituen askatasunari buruzko diskurtso oportunistak eta antikomunismo sutsumak. Ordea, oraingoan ez gara Estatuaren autoritarismoaz arituko.

1963an, Ludwig Erhard, ordura arte Adenauerren ekonomia-ministro izandakoa, kantziler bilakatu zen, eta CDUk bultzatzen zuen lerro ordoliberalari eutsi zion. Ordoliberalismoa Alemaniako klase menderatzailearen ideologia ofizial bihurtu zen, eta, gerora, Europar Batasuneko instituzioen diseinuan eragin handienetakoa izan zuen pentsamendu-korrontea izan zen. Merkatu librearen defentsa eztabaia ez zela eta burgesiaren eskubideak politikoki babesten dituen lege-esparru indartsua –“konstituzionalismo ekonomiko” izenez ezagunak konbinatzen zituen. Lehia eta lehiakortasun industrialera bideratuta zegoen, eta zenbait diferentzia zituen liberalismo austriarraren aldean. 70eko eta 80ko hamarkadetan, liberalismo austriarra inspirazio-iturri izan zen besteak beste Reagan eta Thatcher-en gobernuentzat, zeinak kutsu neoliberalak zuten eta gerraosteko birbanaketa-esparrua ezeztatu nahi zuten. Kontrara, ordoliberalismoak ez zuen halakorik egin; are, bateragarria izan zen langile-klaseko sektore ugari politikoki eta ekonomikoki integratzarekin.



***Errebisionismo historikoa litzateke
Alemaniaren mirari ekonomikoa hauetatik
bereiztea: gerraosteko konstituzionalismo
liberalak ekarri zuen atzerapen
politikoa, koadro naziak Mendebaldeko
Alemaniako Estatuan integratzea eta
komunismoa legez kanpo uztea***





1953 urteko langile altxamendua, Berlinen.



Willy Brandt, John F. Kennedy Estatu Batuetako presidentearekin, Etxe Zurian, 1961eko martxoaren 13an.

Hori horrela, Erharden Gobernuak bere burua behartuta ikusi zuen Alemaniako langile mugimenduari lan arloko zenbait eskubide ematera, Alemaniaren egungo eredu sindikalaren oinarriak ezarri zituztenak aurrerago. Kogestiorako eskubideak –botere sindikal korporatibista ematen zuen Estatu burgesaren forma politikoaren mendeko bihurtzearen truke– ikuskaritza-kontseiluetan ordezkaritza sindikala onartzera behartzen zituen tamaina jakina zuten enpresak. Kontseilu horiek eskumena dute zuzendari exekutiboak kontratatu eta kaleratzeko. Volkswagenen kasua paradigmaticoa da. Haren kontseiluan boterea duten bi familia nagusiak porschetarrak eta piëchtarrak dira, Ferdinand Porsche eta haren suhi Anton Piëchen ondorengoak, hau da, erregimen naziarentzat Volkswagenen fabrikak eraiki zituztenen ondorengoak. Jörg Hofmann da ikuskaritza-kontseiluko presidenteordea, IG Metall sindikatuko presidentea, enpresaren batzorde exekutiboan Daniela Carvallo enpresa batzordeko presidentearekin batera dagoena. Saxonia Behereko Estatuak ere badu ordezkaritza ikuskaritza-batzordean, baita Qatar Emirerriak ere (%17ko jabetza du). Munduan gobernantza-eredu keynestarra murriztearen aldeko apustua egin duen arren neoliberalismoak, Alemaniako kapitalismoaren orientazio espezifikoki ordoliberalak oraindik ere Estatuaren, Kapitalaren eta burokrazia sindikalaren arteko integrazioan bilatzen du oligarkia industrialaren botereari eusteko bitarteko bat. Erregimenaren sindikatuen oportunitasoa ere elementu giltzarria da *Alemaniaren mirari ekonomikoa*ri eutsi zion ereduari.

Gobernantza interklasistako sistema horren kontrapartida “egonkortasunera eta hazkundera” bideraturiko politika fiskal eta monetarioa zen, gerora Europar Batasunaren norabidea markatu zuena. Bundesbankari buruzko 1957ko Legeak independentzia eman zion Alemaniako Banku Zentralari, eta beste edozein helbururen gainetik prezioen egonkortasuna lehenesteko agindua ezarri zuen; hala, Europako Banku Zentralaren pean Europak hartuko zuen gobernantza-esparrua gorpuztu zen.

*Alemaniaren mirari ekonomikoa*ren dimentsio oportunistak ulertzeko beste funtsezko elementu bat AEFren kanpo-politika da. Ekialdearekiko zuen politika, *Ostpolitik* izendaturikoa, AEF Ekialdeko Blokerak hurbiltzeko politiketan oinarritu zen. Esan ohi da Willy Brandt dela *Ostpolitik* delakoaren aita, alegia, AEFko presidente izan zena 1969tik 1974ra. Politika hori bi Alemaniak batu zirenean bukatu zen, eta Errusiarenganako gas-mendekotasunaren problemaren oinarriak ezarri zituen, aurrerago ikusiko dugun moduan. Ordea, Errusiaren eragin-esferarekiko lankidetzaren historia askoz lehenago hasi zen, errepublikaren hasieran, hain zuzen.

1955ean, Adenauer kantziler kontserbadoreak Khrustxov hartu zuen Bonnen, AEFren eta Sobietar Batasunaren arteko harreman diplomatikoak normalizatzearen. Oportunitasoa adibide argia da Adenauerren Gobernuak ez bete izana “Hallstein doktrina”, bere Gobernuak onartua zuena. Haren bidez AEFk erabat debekatua zuen harreman diplomatikoak izatea AED aitortzen zuten estatuekin, salbuespen bakarra SESB izanik. Arrazoia begi-bistakoa da: AEFren eta SESBen arteko harremanak sobietarren eta mendebaldetarren artean antagonismo politiko egiazkorik egon zitekeelako ideia oro ukatzen zuen. Adenauerren hitzarmenen ondoren, aldebiko merkataritzaren goraldi beteak hasi zen. Sobietarren petrolio- eta gas-baliabide ikaragarriak ekonomikoki aprobetxatzeko, beharrezkoa zen Alemaniako oligarkia industrialak AEFn ekoiztutako diametro handiko hodiak saltzea SESBi. Horrela sortu zen munduko petrolio-hodirik handiena, *Druzha* (errusiarrez, “adiskidetasuna”), Moskuren eta Europako gainerako herrialdeen arteko loturaren oinarriak ezartzen zituen.

1973an hasi ziren Alemaniako industria eta etxeak gas errusiarrez hornitzen, bai AEFkoak, baita AEDkoak ere, bietan aldi berean eta lehentasunik eman gabe mendebaldetarrei edo komunistei

1964an, Kennedyren Gobernuak enbargoa jarri zien SESBerako hodi-esportazioei. Ordea, 1969an, Willy Brandtek berriz ireki zituen Ekialdearekiko merkataritza-itunak, eta, 1970ean, SESBek akordio historiko bat sinatu zuen AEFrekin, *Soyuz* gas-hodi errusiarra Bavariako Estatuarekin lotuko zuena Txekiar Errepublika zeharkatuta. 1973an hasi ziren Alemaniako industria eta etxeak gas errusiarrez hornitzen, bai AEFkoak, baita AEDkoak ere, bietan aldi berean eta lehentasunik eman gabe mendebaldetarrei edo komunistei.

Garrantzitsua da gertakari historiko hori tentuz aztertzea, ez *Alemaniaren mirari ekonomikorako* ezinbesteko harreman baten hasiera ekarri zuelako, baizik eta, alde batetik higitu egiten duelako diskurtso sinplista baina hedatu bat, zeinak defendatzen baitu Estatu Batuak izan zirela Mendebaldeko botere-blokean gertatzen zen guztiaren zuzendari eta kontrolatzaile, eta, beste alde batetik, ezin hobeto ilustratzen duelako oportunitateak gobernatzen dituela nazioarteko harremanak. Interes ekonomikoak printzipio politikoak baino garrantzitsuagoak direnean, estalinista zitalak eta belatz inperialistak di-da batean bihurtzen dira elkarren aliatu eta adiskide.

Historiaren paradoxa gisara, Willy Brandtek, AEF Ekialderantz bideratzeko ahalegin handienak egin, SPDren fakzio sovietarzailearen oinarriak ezarri eta bi Alemaniak batzeko aurreneko pausoak eman zituen horrek, Stasiren erruz aurkeztu behar izan zuen dimisioa. 1953an AEDn izan zen langile-altxamenduak eragin zuen deskontrolaren ondoren, agintari-aldaketa bortitzak izan ziren, harik eta Stasik Mielke izendatu eta bete-betean asmatu zuen arte. Mielkek, Markus Wolf kanpozerbitzuetako haren zuzendariarekin lankidetzan, zenbait agente infiltratu zituen NATOren kuarter nagusian, eta hogeit hamar urtean baino gehiagoan lortu zuen handik materiala; halaber, Günter Gillaume agentea infiltratu zuen AEFren Gobernuan, eta horrek Willy Brandten dimisioa ekarri zuen.

Helmut Schmidt Alderdi sozialdemokratako kidea. 1969an Defentsa ministro eta 1972an Finantza ministro. 1974an, Willy Brandt kantzilerraren ordezkari aukeratu zuten, eta kargu horretarako izendatu zuten berriz 1976ko eta 1980ko hauteskundeetan.





Brandten postua haren defentsa-ministro izandakoak hartu zuen, Helmut Schmidtek, eta 1974tik 1982ra izan zen gobernuburu. Frantziarekin batera, Europar Kontseiluaren sorreraren bultzatzaile sutsua izan zen. 1974an sortu zuten, eta Europako hiru komunitateen arteko bileretara joaten zien estatuburuek osatzen zuten, hau da, Ikatzaren eta Altzairuaren Europako Erkidegoan, Europako Ekonomia Erkidegoan eta Energia Atomikoaren Europako Erkidegoan parte hartzen zuten estatuburuek. Brandtek FEDER sor zedin sustatu zuen, lurraldekoheresia handitzeko Europako funts komuna, gaur egun garrantzi handia duena. Europako Diru Sistemaren fundatzaileetako bat izan zen -euroaren aurrekaria-, eta haren agintaldian egin ziren Europako Parlamenturako lehenengo hauteskundeak. Haren ibilbide politikoak ekarpena egin zion *Alemanian mirari ekonomikoari*, Europaren integrazio-prozesua bultzatu baitzuen.

Schmidt zentsura-mozio baten bidez kargugabetu ondoren, Helmut Kohl kontserbadoreari eman zitzaion boterea. Langabeziaren, nazioarteko tentsioen, eta, oro har, krisiaren eraginaren ondorioz, jendeak Kohl goratu zuen, politika antiziklikoak baztertzea eta erreforma neoliberalari bidea irekitzea hitz eman baitzuen; ordea, Alemaniaren bat egitearen kantzilerra izateagatik da ezaguna. AEDren ekonomia sozialistaren gainbehera ulertzeko gakoetako bat 1973ko krisia da. Nahiz eta AEDra esportatzen zuen petrolioaren prezioaren zati bat diruz laguntzen zuen SESBek, sobietarren laguntza ez zen nahikoa izan munduko merkatuaren geldialdiaren eragin kaltegarriak gainditzeko, eta errepublika sozialista zorren eta mendekotasunaren zurrumbilo batean gelditu zen trabatuta, harik eta 80ko hamarkadan krisi fiskal indartsu bat gertatu zen arte. Kontraesan agerikoak egoten hasi ziren AEDren bitzita-estandarren eta lurraldearen esportazio-gaitasunen eta nazioarteko lehiaren artean; hori horrela, kanpoko maileguz hornitua izaten hasi zen AED.

Beste behin ere, enpresa librea negozioa egiten ari zen komunista despotekin, edo, bestela esanda, kazike kapitalistei laguntza eske zebilen Alemania sozialista. Berriz diot: ez al da oportunistoa potentzien arteko harremanetarako forma naturala?

AEDrako mailegu zuzenak ez ziren haren finantziazio-iturri nagusia izan, baina bai estatu gisa irauteko giltzarri. 1983an, Franz Josef Strauß antikomunista eta Pinocheten jarraitzaileak, CDU/CSUren adar gogorreneko kide eta Bavariako gobernatzailerak, 1.000 milioi markoko mailegu bat negoziatu zuen AEDrekin. Mailegua, besteak beste, Deutsche Bank eta Dresdner Bank bankuek finantzatu zuten, eta ekonomia sozialista salbatu eta haren kolapsoa saihestea zuen helburu; mailegu hori ez zitzairen interesatzen ez sobietarrei, ez Erich Honeckerren Politburoari, baina ezta AEFko enpresari-klaseari ere. Beste behin ere, enpresa librea negozioa egiten ari zen komunista despotekin, edo, bestela esanda, kazike kapitalistei laguntza eske zebilen Alemania sozialista. Berriz diot: ez al da oportunistoa potentzien arteko harremanetarako forma naturala?

Egoera behin betiko jasanezina bihurtu zenean, erori egin zen AED. Kohl bihurtu zen errepublika bateratu kapitalista berriko lider. Bushek, orduan AEBko presidente zenak, Alemania berehala NATOan sartzea negoziatu zuen Gorbatxovekin; une horretan, SESB ahul baino ahulago zegoen, erabat lur jota utzi baitzuten ekonomia-gainbeherak eta instituzioen zilegitasunaren galerak. Alemaniaren 1990eko bateratzeak “2+4 Ituna” eta “Hamar Puntuen Programa” izan zituen oinarrian, biak ere Kohlek aurkeztuak. Oligarkia britainiar eta frantsesak prozesu horren beldur ziren, lehen mailako lehiakide baten mehatxu gisa ikusten baitzuten Alemaniaren *risorgimentoa*, alegia, berpiztea. Thatcher eta Mitterrandek eszeptiko jokatu zuten bateratze-prozesuan.

Beranduago, sobietar blokearen desagerpenak erabat zabaldu zizkion Alemaniari Washingtongo Kontsentsurako ateak, eta haren ideologiaren baitan eta diru publikoaren bultzada baten ondoren, ekialdeko ehungintzaren industria huskeriaren truke jaso zuen oligarkia garaileak opari. Nahiz eta AEDko erregimena eskubide politiko mugatuen gunea zen eta haren herriak (AEFkoak bezala) geldialdi ekonomikoaren ondorioak pairatzen zituen, Alemaniako Estatu berria ekialdeko langile-klaseak mendebaldeko oligarkiaren botere politiko eta ekonomikoaren mende jarriz eraiki zen. Gaur egun, oraindik ere, garratzasunez nabari da hori bi eskualdeen arteko boto-arrakalan edo desberdintasun ekonomikoan. “Anexio” hitza injustua eta zehaztugabea da; bada, “liberazio” hitza, apologia liberala besterik ez.

Helmut Kohl 1998ra arte egon zen gobernuan. Haren agintaldian zehar, *Alemaniaren mirari ekonomikoa* –hau da, Estatu bateratua– finkatzeko *beharrrezko forma politikoa* eratzeaz gain, bitartekoak ezarri ziren haren forma perfektionatuena sortzeko: Europar Batasuna.

Bi kontu dira hemen gehienbat gure interesekoak. Alde batetik, Europako herrialdeen arteko lehia irekia kontinentean kapitala metatzeko beharrak betetzeko disfuntzionala dela dioen aitortpen esplizitu eta garatuena dela Europar Batasunaren osaera-prozesua (EB bloke inperialista gisa ulertuta). Hori da EBren ideia bloke inperialista gisa. Beste alde batetik, Maastrichteko Itunaren ezarpenarekin EBko estatu kide guztiak eta Europako oligarkietako frakzio menderatzaileek ideologia ordo liberala onartu zutela. Hori da EBren ideia proiektu antiproletario gisa.



Hans-Dietrich Genscher Alemaniako Atzerri ministroa, Jacques Delors Batzordeko presidentearekin topa egiten, 1992ko otsailaren 7an Maastricht-eko Ituna sinatu ondotik.



Helmut Kohl, 1982 eta 1998 bitartean Alemaniako kantziler izandakoa. 1973tik 1998ra, CDU alderdiko buru izan zen.

Gobernantza-esparru hori orokortzea erabateko arrakasta izan zen oligarkia europarrarentzat, baina bereziki Alemaniakoarentzat. Ordoliberalismoak lehenago *konstituzionalismo ekonomiko* deitu duguna sustatzen du, hau da, ekonomia eztabaida politikoa arauak gidatu behar dutela, eta ez erabaki politikoen diskrezionalitateak. Estatu kapitalistaren parte-hartze politikoko guneen eragina –dagoeneko mugatua– mugatzeko oso modu sotila da. Arrazoi *teknikoengatik* defizitari %3an edo zor publikoari %60an eustea politika publikoaren inguruan erabakitzeko aukera murrizteko modu ideologikoa da. Behetik, noski, zeren eta Alemaniako Estatuak berak, beharrezkoa izan denean, bere arau sakratuak hautsi baititu, beste oportunitate-ekin-tza lotsagabe batean.

Banku Zentralaren independentzia, forma ideologiko edo ezkutatu bat baino gehiago, baieztapen argi eta zuzen bat da: guztiz onartezina da Europako oligarkiarentzat botere legegilea diru-politikaren gaien erdian sartzea. Baina sistema monetario bateratua izateak Alemaniarentzat dituen abantailak haratago doaz. 2014ko uztailean, Nazioarteko Diru Funtzak balioztatu zuen Alemaniaren truke-tasa erreala %5 eta %15 artean “debaluatuta” zegoela. Frankfurt mundu guztiak onartzen du euroak alemaniar esportazioen ezkutuko devaluazio-mekanismo gisa jokatzen duela, eta, arau-erregimen ordoliberalaren bidez, gainerako estatuei beren moneta devaluatzea eragozten du, orain euroa partekatzen baitute dibisa komun gisa. Izan ere, Alemaniak ez zuen kontu korronteko superabit bakar bat ere lortu 90eko hamarkadan.

EBren existentziak Alemaniako Estatuari gaintzeko estatuaren gaintetik egoteko ematen dion botere politikoa Alemaniak EBren integrazio prozesua bultzatzeko arrazoietakoa bat ere izan zen. Gainera, bazkideen diziplina fiskalak ekonomia liderra babesten zuen gainerakoak erreskatatu behar izatearen arriskuaren aurrean. Gogora dezagun Alemania dela EBko estaturik populatuena eta bere motor ekonomikoak blokearen BPGaren %20 baino gehiago hartzen duela. Nahiz eta Alemaniak azkenean beste ekonomia batzuk erreskatatu behar izan zituen, horrek aukera eman zion are botere handiagoko posizioa lortzeko Europar Batasunean, erabaki-eremu pribatu eta burokratikoa den horretan.

Horregatik guztiagatik, Kohlen Gobernuaren probetxugarria izan zen Alemaniako oligarkiaren interesentzat. Baina bada bere agintaldian zerbait, *Alemaniaren mirari ekonomikoa* modu erabakigarrian bultzatu zuena: Gerhard Schröder-en figura. Politikari sozialdemokratik hama urte eman zituen kontserbadoreei oposizioa egiten Saxonia Beherean, 1990ean hauteskundeak irabazteko gai izan zen arte Ernst Albrechten aurka –Von der Leyenen aita eta Kohlen aliatu politikoa–.

Helmut Kohlen agintaldian zehar, Alemaniaren mirari ekonomikoa –hau da, Estatu bateratua– finkatzeko beharrezko forma politikoa eratzeaz gain, bitartekoak ezarri ziren haren forma perfektionatuena sortzeko: Europar Batasuna

Hurrengo hamarkadan, Schröder-ek, gero eta posizio moderatuago batean, *Neue Mitte* edo Zentro Berrirantz egin zuen, Clinton eta Blairren *hirugarren bideak* inspiratuta: aparatu ideologiko bat, garaiko gobernantza neoliberalera egokitzen zuena sozialdemokrazia keynesiarraren programa, baina kontserbadurismotik bereizteko behar den gizarte izaerari erabat uko egin gabe. 1998an, gerra ostean CDUri hauteskunde batzuk irabazi zizkion lehen hautagaia izan zen Schröder. 2005era arte egon zen gobernuan.

Alemaniaren mirari ekonomikoari dagokionez, badira bi elementu bereziki aipagarri. Ustelkeriak Schmidt eta Kohlen Gobernuak setiatu zituen arren –funtsean, Estatu kapitalistaren formak berezkoa du ustelkeria–, Schröderrek bereziki iruzurrezkoa zen gobernatzeko modu batean sakondu zuen. Auziaren gauzarik garrantzitsuena ez da Alemaniako Estatuan kultura politiko berri bat ezarri izana. Merkelen agintaldi luzearen ondoren, esan liteke horrelakorik ez zela gertatu. Schröderrek politika egiteko moduan aldatu zena errusiarren eta alemaniarren arteko oligarkia-harremanek hartu zuten bultzada indartsua da, *Alemaniaren mirari ekonomiko*a eta zeharkatzen duen *Zeitenwendea* ulertzeko oso garrantzitsua dena.

Schröderrek ehundutako sare korporatiboez besteak beste Ruhrgas, Volkswagen eta Allianz enpresetako zuzendaritza-kontseiluetan pertsona berberak egotea lortzen zuten, non gas errusiarrak gas, kimika, automobilgintza eta finantza alorretako enpresak bateratzen baitzituen erabateko harmonian. Errusiaren eta Alemaniaren arteko lotura estuaren ondorioz, Schröderrek hainbat enpresa fusionatu zituen E.ON sortzeko, estatuko txapeldun handia energiaren arloan –prozesu hori egiteko, beharrezkoak izan ziren sektoreko enpresetako lehia-arauen ikuskatzaileei jarri zizkieten ate birakariak–. Geroago, E.ON eta BASF enpresek, Gazprom enpresa errusiarrarekin batera, zalantzarik gabeko arrakastako enpresa-partzuergo bat sortu zuten. Nord Stream AG zuen izena. German Eastern Business Association eta Steinmeier bera ere funtsezko eragileak dira Errusia eta Alemaniaren arteko aliantza ulertzeko. Ustela izatearen klixexa AEDri egoztea, edo, bertsiorik arrazistenean, Europa hegoaldeko herrialdeei, gustu txarreko txantxa bat da, besterik gabe.

Edonola ere, garrantzitsuena da ulertzea Schröderren Gobernuak hainbeste sendotu zuela Berlin-Mosku ardatza –hain onuragarria Alemaniako oligarkia industrialarentzat–, non Merkelen ondorengo gobernuak ez duten beste aukerarik izan Errusiako oligarkiarekin harreman estua izatea baino.



Gerhard Schröder 1998-2005 bitartean
Alemaniako kantziler izandakoa.

**Geroago, E.ON eta BASF
enpresek, Gazprom
enpresa errusiarrarekin
batera, zalantzarik
gabeko arrakastako
enpresa-partzuergo
bat sortu zuten. Nord
Stream AG zuen izena**

Schröderrek Alemaniaren *mirari ekonomikoari* egin zion bigarren ekarpen handia *minijoben* lan politika izan zen. Alemaniako eskulana merkatze-ko asmo handiko erreforma sozioekonomikoen sorta bat zen “2010eko Agenda” –Peter Hartz automobil-industriako exekutiboak diseinatua; gogoratu Schröderri *Autokanzler* deitzen ziotela, autoen kantzilerra alegia-, eta, haren barruan, Schröderrek ordainsari baxuko enplegu sistema bat ezarri zuen, non langileek hilean gehienez ere 450 euroko diru-sarrerak zituzten eta salbuetsia zeuden gizarte segurantzari eta pentsio sistemari zergak ordaintzetik. Ustez igogailu sozialaren funtzioa bete eta langabezia deuseztatuko zuen eredu horrek Alemaniako proletariotzaren sektore prekarizatuenak kontratu zaborren eta pobretzearen espiral batean harrapatu zituen. Schröderrek 2005eko hauteskundeetan galdu zuen gobernua Merkelen aurka, Nord Stream AG enpresako arduradun nagusi bihurtu zen, eta, ondoren Errusiako gas sektoreko lobista.

Merkelen etorreraren ondoren, Errusiaren eta Alemaniaren arteko harreman komertzialak hazten jarraitu zuen, nahiz eta Merkelek Steinmeier eta Schröderrek baino ikuspuntu hotzagoa eta eszeptikoagoa izan. Ikusi dugunez, SPDn korrelazio handia zegoen Errusiarekiko kanpo harremanak sustatzearen eta alderdiaren barne egituraren gora egitearen artean. Are gehiago, Alemania eta Errusiako oligarkiaren arteko lotura industrial hain zen indartsua, ezen alemaniarren eta errusiarren arteko aliantza politikoa elementu transbertsala bihurtu baitzen Alemaniako ordenaren alderdi guztientzat. 2012 eta 2022 artean inportatutako gas errusiarra %34,6 izatetik %54,9 izatera pasa zen. Hala ere, 2014an Errusiak Krimea anexionatu zuenean, aliantza hondatzen hasi zen. Merkelek zigor sorta bat proposatu zuen Errusiarentzat, baina SPD-CDU/CSU Koalizio Handiko eta haren enpresa inguruneke hainbat aktorek kontra egin zioten: bai lurraldeetako baroiek –bai SPDkoak, bai Merkelen beraren alderdikoak–, bai eta German Eastern Business Association-ekoek ere, zeinak garai hartan Eckhard Cordes baitzuen buru, Mercedeseko zuzendaritzako kide izandakoa. Alemaniako boterearen zati oso nabarmen batek zigorren kontrako jarrera hartu zuen.

Edonola ere, Merkelek erabakitasunez bultzatu zuen Alemaniako kanpo politikaren *business-first* ikuspegia. Errusiari jarritako zigorrak pantomima itxura hartu zuen gerora, gas inportazioen datuek berresten dutenez, baina ez hori bakarrik, Alemaniak Errusian egindako inbertsioa ere nabarmen hazi zen zigorren garaian: 2013an 667 milioi eurokoa izan zen, eta zigorrak aplikatu ostean, 2016an adibidez, 1.075 milioikoa. Merkelen diskurtso liberal antierrusiarra eta Putinen abertzaletasun antimendebaldarra desegiten ari ziren Veltins-Arenako palkoan: Ruhr eskualdeko Schalke 04 futbol-taldearen estadioa publizitatez bete zuen Gazpromek, ezin hobeto agerian utzita nazioarteko harreman kapitalisten oportunismo naturala.

Baina Merkelen Gobernuek nabarmen lagundu zuten *Alemaniaren mirari ekonomikoaren* beste protagonista handi batekin harremana sendotzen: Txinarekin. Artikuluaren abiapuntura hurbilduko gara. Estatu zentralaz gain, Alemaniako ia lander guztiek dituzte Alemania eta Txinaren arteko harreman komertzial, produktibo eta finantzarioak estutzen dituzten garapen agentziak. Hain justu, Gerhard Schröderrek berak 2001ean gogo handiz bultzatu zuen Txina Munduko Merkataritza Erakundearen sartzeara, baina 2010eko hamarkada izan zen, zalantzarik gabe, Berlin-Pekin aliantzaren garairik oparoena.

Merkel Txinako Alderdi Komunistaren eta Alemaniako Estatuaren arteko harreman politikoen sortzaile handienetako bat izan zen. 12 aldiz bisitatu zuen Txina kantziler izan zen denboran, zeina Europako beste lider batzuekin alderatuta kopuru nabarmen handia baita. Merkelek Xi-rekin lan egin zuen merkataritza loturak sendotzeko, hainbestearino non, haren agintaldian, Alemaniako bazkide komertzial nagusia bihurtu baitzen Txina. Dagoeneko esan dugu Scholz, 2021ean Merkelen lekua hartu zuena, ez zegoela Errusiaren aldeko taldean SPDren barnean, baina bai Txinaren aldekoan, eta horrek bien arteko jarraipena markatu zuen. Txinako burokratek tentu eta begirune handiz tratatu zuten Scholz Hamburgeko alkate zenetik. Etorkizuneko kantzilerra ikusten zuren euren aurrean.

2007an, Alemaniako Industriaren Asia eta Ozeano Bareko Batzordeko lehendakariak Alemanian orokortutako iritzi bat adierazi zuen: Txina aukera bat zela, eta ez mehatxu bat. Baina 2019an Europar Batasunak Txina “arerio sistemiko” izendatu zuen. Ikus dezagun zer gertatu zen eta zer inplikazio dituen *Alemaniaren mirari ekonomikoak* aurre egin behar dion *Zeitenwende* edo garai-aldaketarentzat.

Merkel Txinako Alderdi Komunistaren eta Alemaniako Estatuaren arteko harreman politikoen sortzaile handienetako bat izan zen



Angela Merkel, CDUko kide eta Alemaniako kantzilerra 2005-2021 artean.

Alemaniar 2008 eta 2015 artean Mendebaldeko mundua kolpatu zuen shock finantzario izugarriaren ondorioz piztu zitzaion Txinako oligarkiarekiko afinitate handia. euroguneko krisiaren ondorioz, euroaren balioak lurra jo zuen, eta horrek esportazioen devaluazio nominala ekarri, eta bultzada handia eman zion haren eredu ekonomikoari. Gainera, Europa hegoaldeko krisi fiskalaren testuinguruan, Alemaniako Estatua gune seguru bihurtu zen inbertitzaileentzat, eta hamar urterako bonu alemaniarra, *Bund* izenekoa, Europako erreferentzia bihurtu zen. Horrek Txinari aukera eman zion dolarren menpeko erreserbak dibertsifikatzeko eta bere superabitak Alemaniako zorra finantzatzu bideratzeko. EBZren diru-politika hedakorrak beherantz bultzatu zituen interes-tasak –horrek are gehiago bultzatu zituen enpresa-kredituak–, Alemaniako Estatua finantzatu zuen era zabalean eta kolapsotik salbatu zuen Alemaniari etekin handiak ateratzeko balio zion merkataritza-finantza sistema bat. Osagai guztiak mahai gainean zeuden: lurzoruegatiko interes tasak, soldata lehiakorrak, superabit komertzial handiak, truke-tasa devaluatua eta Estatu indartsu bat. Alemaniako oligarkiak testuinguru aproposa aurkitu zuen txinatar esplotatzaileekin elkartzeko.

Ekialdean, Txina gune ezin probetxugarriagoa zen eskala handiangoan erreproduzitzeko *Alemaniaren mirari ekonomikoaren* bi zutabeak: ekoizpena eta esportazioa. Lankidetzarako eredu hauxe jarraitzen zuten. Txinak Alemaniako enpresei exijitzen zien *know-how* industrialia partekatzeko, Alemaniako eta Txinako enpresen artean *joint-ventures* direlakoen sorrera baimentzearen truke. Munduko kontsumo eremu zabalenetako (eta merkeenetako) batean ekoiztea eta saltzea apustu ukaezina zen alemaniar ekoizleentzat. Hala ere, Berlin lo zegoen bitartean, Txina industria sortzen ari zen hutsetik. Industria-teknikak kopiatu, merkatuan hutsunea detektatu, eta software teknologia garatu zuen; bateria-ekoizle nagusi gisa kokatu zen, eta tokia erabat kendu zion alemaniar ekoizleei. Auto elektrikoa ez da beste ezaugarri batzuk dituen errekontza-autoa, teknologikoki askoz ere aurreratua goa den beste produktu bat da, prestazio gehiago dituen eta, batez ere, eskulan gutxiagorekin ekoizti daitekeena. Gainera, Txinako oligarkiak hornikuntza-kate osoan inbertitu zuen: izan lur arraro eta imanetan, izan litioaren munduko merkatur bereganatzeko ahaleginetan, eta baita produktuan ere, behinola alemanek errekontza-autoarekin egiten zuten bezala.

Txinako oligarkia esportazio eredu lehiakorrago eta teknologikoki hobea eraikitzeko oinarriak ezartzen joan zen, eta, bitartean, Alemaniako oligarkiak, gasez eta eskulan merkez gainezka, ezin izan zuen errekontzatic haratago beste ezer ikusi. Hala, automobilgintzaren merkatuan, Alemaniaren merkataritza-gotorleku nagusi izandakoan, Txinak ordezkatu du Alemania. Gaur egun, Asiako errepublikan gehien saltzen diren lehen hamar autoen artean ez dago auto alemaniar bakar bat ere. Txinak automobilgintzan izandako aurrerapen teknologikoagatik gertatu da hori, eta auto elektrikoan osagaietan lehiatzeko duen abantailari esker, bai, baina Txinako eredu ekonomikoaren egiturazko faktoreen ondorioa ere bada.

Txinan, kontsumoaren pisua erlatiboki oso txikia da ekonomian; beraz, ondasunen eskarian eragin handia du prezioak. Txinako langileen aurrezki tasak oso altuak dira; izan ere, gizarte segurantzako sistemak ez ditu langileen osasun behar asko asetzen, pentsioak ez dira nahikoa izaten eta orokorrean soldata-maila baxua da. Horri esker, Txinak, ekoizpen gune gisa, lehia-abantailak ditu beste batzuekin alderatuta, hau da, proletariotza industrialaren miseria ekonomikoa orain arazo bat da

Txinako oligarkia esportazio eredu lehiakorrago eta teknologikoki hobea eraikitzeko oinarriak ezartzen joan zen, eta, bitartean, Alemaniako oligarkiak, gasez eta eskulan merkez gainezka, ezin izan zuen errekontzatic haratago beste ezer ikusi

Alemaniako oligarkiarentzat. Lehenik eta behin, Txinako ekoizleek teknologikoki ere aurrera egin dutenez, abantaila bera dutelako orain, eta, ondorioz, desagertu egiten delako abantaila hori. Bigarrenik, Txinak automobilgintzaren merkatuko segmenturik merkeenak okupatu dituelako, masiboki soldata baxuetara kondenatutako eta Estatuaren babesik gabeko langile klaseak betetzen dituenak.

Automobilgintzaren kasua nahikoa ez balitz, oro har, bi potentzien arteko harreman komertziala kaltegarria da Alemaniarentzat. Txina da Alemaniako ondasun eta zerbitzuen erosle nagusia (192.000 milioi euro), eta Errepublikak Federala, aldiz, haren laugarren helmuga da esportazioetan (107.000 milioi euro). Gainera, Alemaniako enpresa txiki eta ertainak Txinaren mende daude erabat, enpresen erabilerarako produktu ugari behar baitituzte, hala nola elektronikoak, lur arraroak (%98), eguzki-panelak (%87), imanak, bateriak eta hainbat produktu kimiko, baina baita kontsumorako ondasunak ere, hala nola ordenagailu eramangarriak (%80) edo sakelako telefonoak (%70). Alemania neurri handiagoan bihurtu da Txinaren mendeko alderantziz baino. Alemaniako konpainia askok eta askok Txinari lotuta jarraitzea beste aukerarik ez dute.

Ukrainaren inbasioak eta Nord Stream gasbideen sabotajeak Alemaniak nazioarteko ordena kapitalistan zuen posizioa birpentsatzea ekarri zuen. Baina Estatu Batuek Txinari jarritako zigorrak erronka handiagoa izan ziren. Trumpen lehen Gobernuak Txinako sektore teknologikoaren aurkako zigorrak ezarri zituen arren, Bidenek erreleboa hartu eta gogor zigortu zituen Huawei eta SMIC. Alemaniako konektagarritasun azpiegitura penagarria da, eta, 5Ga eta nahitaezko beste teknologia batzuk ezartzeko, Huaweiren lankidetzaren mende zegoen erabat, botere globalaren posizioa bertutuko bazuen. Hala ere, erronka egiturazkoa da, ez soilik teknologikoa.

Talde txinatarrek koloso industrialak erosi izanak, Kuka edo Aixtron esaterako, errezeloa sortu zuen Berlinen 2016an. Txinan kokatutako enpresa alemaniarren informazioa gero eta gehiago kontrolatzeko Xiren maniobrek benetan larriarazi zuten Alemaniako Gobernua, harik eta 2019an, Macronek Alemania konbentzitu zuen arte, esan bezala, Txina "arerio sistemiko" izendatzeko. Hala ere, urtebete geroago, Merkelek berak EB-Txina goi-bilera antolatu zuen Leipzigen, beligerantzia europazaleari kontrapisua egiteko. Txinari ezarritako tari-

Konponbide oligarkikoaren B aldea, noski, kaleratze masiboak eta soldata-jaitsierak dira, eta onartzea Estatuak diru-kutxa publikoetatik gero eta diru gehiago bideratu beharko duela Alemaniako oligarkia nazioarteko merkatuan birkokatzeke

Baina errealitatea da aspaldi honetan gero eta argiago ikusten direla interes-desberdintasunak estatubatuarren eta europarren –eta batez ere alemaniarren– artean

fa eta zigorrak onartezinak dira Alemaniarentzat, artikuluan azaltzen ari garen guztiagatik, hau da, Alemaniak lanaren nazioarteko banaketan duen posizioagatik. Scholzi gertatu zitzaion gauza bera gertatu zitzaion Merkeli: Txinarekiko mendekotasun ekonomikoak harrapatuta, atzera bota behar izan zuen bere blokeak Txinaren kontra erakutsitako lehia politikoa.

Alemania atzeraldian egon da azken bi urteetan. 2023an, haren BPGa %0,3 murriztu zen, eta jarrera gehiago egin zuen behera: 2024an, % 0,2. Eta horrela iritsi gara berriro ere Alemaniako kapitalismoak aurrez aurre duen benetako *Zeitenwendera*. Egia da beste potentzia batek haren hazkunde eredu bera aplikatzea erabaki duela –esportazioetara bideratutakoa, alegia–, maila globalean balantza komertzialek batura zero den joko batean diharduten mundu honetan. Baina, egoera horretan ere, Txina Alemaniaren aliatu ekonomikoa da.

Datozen urteetan bi potentzien arteko merkataritza-oreka berregokituko balitz, Txina arazo izatetik irtenbide izatera pasa liteke. Alemaniako oligarkiak mantendu egingo luke Txinan duen produkzioa, Alemanian lantegiak itxiko litzuzke behar izanez gero, automobilgintza-merkatuko segmenturik garestiena hartuko luke eta Txinako ekoizleei ekoizpen-lerro merkeenak emango lizkieke. Konponbide oligarkikoaren B aldea, noski, kaleratze masiboak eta soldata-jaitsierak dira, eta onartzea

Estatuak diru-kutxa publikoetatik gero eta diru gehiago bideratu beharko duela Alemaniako oligarkia nazioarteko merkatuan birkokatzeke. Nire iritzia honakoa da: proletariotzaren aurkako ofentsiba ekonomikoa areagotu eta, beharrezkoa balitz, alemaniarren eskubide politikoak are gehiago murriztu gero, *Alemaniarren mirari ekonomikoak* biziraun lezakeela.

Dena den, 1945etik aurrera Alemania –mendebaldetik hasita– integratu zuen bloke politikoaren liderra den potentziak etsai estrategiko nagusitzat jo du Txina. Egia da European potentzia gehienek harreman anbigua dutela Txinarekiko, lankidetzeta eta lehia uztartzen dituen. Era berean, Estatu Batuak ere, alderdi militarraz gain, lehen mailako bazkide komertziala dira. Baina errealitatea da aspaldi honetan gero eta argiago ikusten direla interes-desberdintasunak estatubatuarren eta europarren –eta batez ere alemaniarren– artean.

Alemaniako kapitalismoaren bi zutabeak, hau da, Mendebaldearen nagusitasun politikoa eta Ekialdearen elkarlan ekonomikoa, pixkanaka ahultzen ari dira. Alemaniari bi mundu horietatik etekina ateratzeko aukera ematen zioten gune gris estrategikoak jada ez dira existitzen. Interes ekonomikoen eta leialtasun politikoaren arteko tentsioa gero eta handiagoa den *Zeitenwende* honetan, Alemaniako oligarkia aukeratu beharrean dago. ●

KOLABORAZIOA

ALEMANIAKO KRISIA BERE TESTUINGURUAN

Testua — **Mikel Bartolome**

Irudia — **Jiker uve**

Hiru lantegiren itxiera eta %10eko soldata murrizketa Volkswagenen, 11.000 kaleratze 2030. urterako Thyssenkrupp siderurgikoan, 7.000 kaleratze Evonik Industries enpresa kimikoan, 5.000 kaleratze baino gehiago Bosch-en, 5.000 Siemens-en, 3.500 langileren berregituraketa Deutsche Bank-en, 3.000 kaleratze Ford alemaniarrean, 4.000 inguru Audin, 3.500 Continental pneumatiko markan... eta hori guztia Alemaniako Gobernuko hiruko koalizioaren amaiera tarteko.

Honezkerok, inor ez litzateke harritu behar Alemaniako ekonomia krisian dagoela esaten badugu. Hainbat hamarkadatan "Europako lokomotorra" izan denak, gaur egun bere hazkunde ekonomiko ereduaren egiturazko krisi bati aurre egin behar dio. Alemaniako eredu ekonomikoak hazten jarraitzeko muga handiak ditu: ekonomia atzeraldian dago bigarren urtez jarraian, ekoizpen industrialeko indizeak minimoetan daude eta esportazioek beherakada handia jasan dute.



Duela aste gutxi, “Nafarroa kontinente bat da: krisi industrial eta klase-borroka” testuan –*Gedarren* webgunean dago eskuragarri–, Dani Askunzek fenomeno ekonomiko konkretuak ekonomia global kapitalistaren eta bere garapen legeen parametroen barnean aztertzeko beharra erakutsi zuen. Pertsonalki, gai honen garrantzia azpimarratu besterik ezin dut egin. Azken finean, hain integratuta dagoen mundu mailako merkatu batean, zeina balioaren legearen lanaren nazioarteko banaketak gidatzen duen, metaketa globalaren garapenaren legeek hartzen duten forma lokalizatua baino ez dira ekonomia nazionalen krisiak.

Alemaniako ekonomiaren ezaugarri nagusia manufaktura-ekoizpeneko ekonomia intentsiboa izatea da eta, hein handi batean, kanpo merkataritzara bideratuta dago. Bere gaitasun teknologikoari eta industria handiari esker, munduko laugarren ekonomia handiena izan da AEB, Txina eta Japoniaren atzetik. 1940ko hamarkada bukaeran –Bigarren Mundu Gerra ostean– hasi zen Alemaniako ekonomia gaur arte iraun duen ereduaren oinarriak ezartzen. Marshall Planak, markoa gerraosteko inflazioa kontrolatzeko legezko txanpon berri bezala ezartzeak eta azpiegituraren berreraikuntza handiak ahalbidetu zuten, besteak beste, (mendebaldeko) Alemania munduko ekonomia kapitalista indartsuenetakoa bihurtzea hurrengo hamarkadetan. Garai hartan hasi zen, halaber, gaur egun bere jarduera nagusiak izaten jarraitzen dutenak garatzen: ibilgailu industria, industria kimikoa eta manufakturan espezializatutako ingeniariak. Baina, batez ere, gerraosteko susperraldia eta “Alemaniaren mirari ekonomikoa” oso lotuta egon ziren haren gaitasun esportatzailearekin; eta hori ezin da azaldu Europaren integrazio prozesua aintzat hartu gabe.

Alemaniako eredu ekonomikoak hazten jarraitzeko muga handiak ditu: ekonomia atzeraldian dago bigarren urtez jarraian, ekoizpen industrialeko indizeak minimoetan daude eta esportazioek beherakada handia jasan dute

Europar Batasunaren eta bere erakunde guztien sorrera izugarri onuragarria izan da Alemaniarentzat eta European zein mundu mailan duen posizioarentzat, izan ere, Europako moneta bakarra –euroa– ezartzeak mesede handia egin zien Alemaniak EBko kideekin zituen merkataritza-transakzioei

KANPO HARREMANAK ETA EUROPAREN INTEGRAZIO PROZESUA

Bistan da ekonomia batek munduko ekonomian duen posizioa funtsezkoa dela haren izaera ulertzeko. Beste era batera esanda, ezin da ekonomia bat aztertu munduko gainerako herrialdeekin dituen merkataritza-harremanak kontuan hartu gabe. Munduko edozein ekonomiari aplikatu dakioken baieztapen horrek garrantzi berezia du Alemaniaren kasuan.

1957an Europako Ekonomia Erkidegoa (EEE) sortu izana –geroagoko Europar Batasuna eratzeke oinarriak jarri zituen hitzarmena– oso garrantzitsua izan zen Alemaniako garapen ekonomikorako. Merkatu komun bat eta aduana-batasuna ezarri zituen erkidego haren bidez, estatu kideek elkarren artean produktuak esportatu eta inportatzeko aukera lortu zuten, merkataritzarako muga-zergea edo traba oro saihestuz. Jakina, horrek ekonomia esportatzaileei –Alemaniari, kasu– egin zien mesede, euren merkantziak kanpoan kokatzea erraztu baitziren. Makinak eta automobilak egiteko zuten abantaila teknologikoa zela eta, Alemania Europako ekonomia esportatzaile nagusia bihurtu zen.

Gainera, European merkatu bakarra izateak kapitalen mugikortasun askea ere ekarri zuen. Horrekin batera, Alemaniako punta-puntako enpresek –Volkswagen, BMW, Mercedes-Benz, Bayer, Siemens, Philips, etab.– inbertsio kantitate handiak jaso zituzten kanpotik eta, horri esker, garaiko kapital industrial handi bihurtu ziren. Hala, Alemaniako jarduera ekonomikoak hazkunde jarraitua izan zuen urteetan zehar, 1973ko petrolioaren krisi osteko urteetan izan ezik; krisi hark energiaren prezioen hazkunde handia ekarri zuen, bai eta mendebaldeko eta ekialdeko Alemaniaren ekonomien integrazioa ere.

Bestalde, Alemaniari ez dio Europaren integrazio prozesuak soilik egin mesede: globalizazio ekonomikoaren prozesua ere –harreman kapitalistak planeta osoan hedatzea eta munduko lurralde zabalak mundu mailako merkatu berean integratzea ekarri zituen– erabat onuragarria izan zen bere ekonomiarentzat. Izan ere, globalizazioa karakterizatu duten bi elementu nagusi izan dira gutxi garatutako ekonomia handiak zirkuitu ekonomiko globaletan txertatzea, eta muga-zergak murriztea zein nazioarteko merkataritza liberalizatzea.

Hala, 1980eko hamarkada bukaeratik industrializazio prozesu berantiar bat bizi zuten ekonomiek –batez ere Asiako hego-ekialdean eta Europa ekialdean– ehun industrial bat osatzeko makinak eta bestelako ekipamendu ondasunak behar zituzten. Alemaniako kapital industrialak egoera horri etekina ateratzen eta kapitalismoaren lasterketan postuak aurreratzen jakin zuen, hornitzaile nagusi moduan kokatuz. Hala, Alemaniako ekonomia munduko automobilen esportatzaile handiena bihurtu zen, batetik, eta garapen bidean zeuden herrialdeentzako ekipamendu industrialen hornitzaile nagusi gisa ezarri zen, bestetik.





GALERIA

BS-EL 286

Bestalde, Europar Batasunaren eta haren erakunde guztien sorrera izugarri onuragarria izan da Alemaniarentzat eta Europan zein mundu mailan duen posizioarentzat; izan ere, Europarako moneta bakarra –euroa– ezartzeak mesede handia egin baitzien Alemaniak EBko kideekin zituen merkataritza-transakzioei. Sinpleago esanda, bi ekonomia desberdinek moneta bera badarabilte, kanbio fluktuazioak saihesten dira eta transakzioak sinplifikatu eta merkatzen dira. Modu horretan, Alemaniak errazago salerosi zuen euroguneko gainerako herrialdeekin, eta horrek haren merkataritza-harremanak sendotu zuen, bai eta nazioarteko merkataritzan zuen posizioa ere gehiago indartu ere. Hala, Alemaniako ekonomiak bere merkataritza-balantzan superabit handiak metatu ditu urteetan zehar –horrek esan nahi du bere esportazioak inportazioak baino dezente handiagoak izan direla–, eta horien artean nabarmentzekoak dira 2016., 2017. eta 2018. urteak, 250 mila milioi euro baino gehiagoko superabita lortu baitzituen urte horietan –bere BPGaren %7 baino gehiago–. Zenbait urte lehenago, lehenengoz 2007an, Alemaniako esportazioek Estatu Batuetako ekonomiarenak gainditu zituzten termino absolutueta –azken hori munduko ekonomia handiena da–. Horrek bitxia den chauvinismo ekonomiko orokortu bat eragin zuen, halako moldez non agintari eta kazetari alemaniarrek euren ekonomiaz hitz egiten zuten, pozik eta harrokeria zantzu batez, *Exportweltmeister* hitza erabilita, zeinak “esportazioen mundu mailako irabazlea” esan nahi duen gutxi gorabehera.

Hala ere, eurogunearen eta Europar Batasunaren bidezko Europaren integrazio prozesuaren elementu garrantzitsuena Alemaniak Kontinente Zaharrean zuen eragin politikoa indartu zuela izan zen. Izan ere, Europako ekonomia handieneko eragile politikoez paper garrantzitsua dute EBko politika ekonomiko eta monetarioetan, baita haren norabide estrategikoan ere. Esate baterako, Alemaniako agintari politikoen presioek eta influentzia-gaitasunak gogor eragin zuten 2009 eta 2014 artean, krisi finantzarioari erantzuteko europar erakundeek ezarritako politiketan. Era horretan, sortu zenetik, eurogunek devaluatuta mantendu du alemaniar euroa beste dibisekin alderatuta –Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) hainbatetan kalkulatu zuen euroa %5 eta %15 artean devaluatuta zegoela Alemaniarentzat–. Izan ere, eurogunearen barruan dibisa bera partekatzen den arren, soldata, prezio eta lehiakortasun maila ezberdinak daude eta, horren eraginez, moneta bera gainbaloratuta egon daiteke lurralde batzuetan, beste batzuetan devaluatuta dagoen bitartean. Nola ez, horrek ez ditu ondorio berak denentzat: mesede egiten die herrialde esportatzaile aberatsenetako kapitalei, beren esportazioak handitu ditzaketelako –Alemania, Herbehereak eta Belgika, besteak beste–, eta, aldiz, oztopatu egiten ditu Europa hegoaldeko ekonomiak –bereziki Portugal, Italia, Grezia eta Espainia–.

Nolanahi ere, badirudi Alemaniari eta Europaren zati handi bati euren posizio inperialista mantentzea eta Hegoalde Globaleko langileen esplotaziotik errenta-transferentzia jasotzea ahalbidetu dien eredu hau amaitzen ari dela.

Europako Batzordearen arabera, Europako energia elektrikoaren batez besteko kostua Txinakoa eta AEBkoa baino %150 handiagoa izan zen 2023 erdialdera



ALEMANIAKO KRISIAREN EGITURAZKO KAUSAK

Alemaniaiko krisia hainbat arrazoiren baturaren ondorio den arren, Txinak potentzia industrial gisa izan duen hazkundea faktore bereziki garrantzitsua da. Asiako erraldoia, balio erantsi txikiko manufaktura-ekoizpenean ardaztutako ekonomia bat izatetik urrun, munduko potentzia industrial eta teknologiko nagusi bihurtu da. Hala, oso denbora gutxian Alemaniari lekua kendu dio esportazio industrialen munduko lider moduan. Ikerkuntzan eta garapen teknologikoan egindako apustu sendo baten ondorioz, duela jada zenbait urte, Txina da patente gehien erregistratzen dituen herrialdea, Estatu Batuek –bere lehiakiderik behinena– halako hiru erregistratu baititu. Garapen teknologikoan duen gaitasun handiari esker, Txina potentzia nagusi bilakatu da abangoardiako industrietan, hala nola telekomunikazio sistema modernoetan, batez ere 5G sareetan; robotikan eta automatizazioan; energia berriztagarrian; meatzaritzan; elektronika integratuan eta automozioan.

Era berean, Alemania –eta Erdialdeko Europako zati handi bat– beherakada handia jasaten ari da nazioartean lehiatzeko duen gaitasunari dagokionez, neurri handi batean, kostuen gorakada dela eta. Erdialdeko Europak energia-kostuen gorakada handia izan du 2022tik aurrera eta hori funtsezkoa da ekoizpenean energia-hornidura handia behar duten industrietzat. Gai zentrala da: Europako Batzordearen arabera, Europako energia elektrikoaren batez besteko kostua Txinakoa eta AEBkoa baino %150 handiagoa izan zen 2023 erdialdera. Europa energia inportatzaile netoa izan da urte urte, bere ekoizpen gaitasuna ez baita bere eskaria asetzeko bestekoa. Kontrara, Txinak, energia berriztagarriari dagokienez potentzia bat denak, inbertsio ikaragarria egin du estatalki zentralizatutako politika industrialen bidez, energia elektriko merkea lortzeko helburuarekin. Gas naturalaren prezioari dagokionez, Nord Stream 2ren leherketa tarteko, Europaren eta Txinaren arteko aldea %345 handiagoa zen 2023 erdialdera. Izan ere, Txinak izugarri handitu du gasaren erabilera azken hamarkadetan eta baliabide hori merke lor dezake Errusia, Saudi Arabia eta antzeko herrialde hornitzaileekin duen lehentasunezko tratuatik. Bien bitartean, Draghi Txostenaren arabera, Alemaniako energia-kostuak %30 igo dira urte eta erdian.



Bestalde, ezberdintasun handiak daude soldata mailan ere. Alemaniako manufakturako langile batek batez beste 34.500 € inguru irabazten ditu eta, bitartean, Txinako batek -azken bi hamarkadetan soldata maila asko igo bada ere, nahiz eta izan duten produktibitate mailaren igoera baino txikiagoa izan igoera hori- 13.000 € irabazten ditu batez beste; hau da, ia herena. Historikoki, ekonomia zentralak soldata-ezberdintasun horiek eta beste kostu batzuei dagozkienak probestu izan dituzte periferiako langile klasea gainesplotatuz balio transferentziak lortzeko, kapitalaren nazioarteko mugikortasunaren eta nazioarteko lan banaketaren bidez.

Baina, gainera, Txinak industria-ondasun askoren ekoizpen katearen fase gehienen kontrol eraginkorra bereganatzea lortu du hala nola erdieoroale, bateria elektriko eta automobilenak. Bere autonomia estrategikoan aurrera egiteko helburuarekin eta epe luzerako industria-politika zehatz baten ondorioz, industria-eraldaketari lotutako metal estrategiko gehienak -litioa, kobaltoa, neodimioa, grafitoa, lur arraroak- erauzteko eta fintzeko gaitasuna ziurtatu du. Bateria elektrikoaren ekoizlerik handiena ere bada, alde handiarekin.

Epe luzerako industria-politika zehatz baten ondorioz, industria-eraldaketari lotutako metal estrategiko gehienak -litioa, kobaltoa, neodimioa, grafitoa, lur arraroak- erauzteko eta fintzeko gaitasuna ziurtatu du Txinak

Auzia sinplea da: muga-zergak jarrita ere, auto txinatarrak Europakoak eta, zehazki, Alemaniakoak baino askoz ere merkeagoak dira

Horrez gain, azpimarragarria da EBko industria-erregulazioak gogorki kritikatu dituztela burokratikoegiak izateagatik eta estatu kideen artean homogeneizazio txikia egoteagatik. 2025eko urtarril bukaeran, ia xehetasunik eman gabe, Europako Batzordeko presidenteordeak iradoki zuen Europako auto elektrikoen eskaria bultzatu behar zela kontinente mailako dirulaguntza-tresna baten bidez. Bestalde, testu hau idaztean –hauteskunderen emaitzen zain egonik– Olaf Scholz Alemaniako kanzilerrak laguntza zuzenak eskatu zituen Alemanian ekoiztutako auto elektrikoentzat. Ikusteke dago zertan datzan izaera protekzionistako politika horien azken diseinua. Egia da, oraingoz, kritika eta ziurgabetasun artean, Europako Itun Berdeak 2035erako errektuntza-motorrak dituzten autoak saltzeko debekuari eusten diola. Ikusi egin behar da zertan geratzen den. Bien bitartean, Txinako industriak ingurumen erregulazio bigunagoak probesten ditu eta lehentasunezko sektoreek finantza baliabideen transferentzia zuzenak jasotzen dituzte banku eta inbertsio funts estatualen bidez.

Faktore horien guztien ondorioz, Alemaniak potentzia industrial gisara zeuzkan lehiakortasuna eta esportazio gaitasuna larriki murriztu dira. Hain zuzen ere, Txina bera izan da hamarkada bat baino gehiagoz, 2020ra arte, Alemaniako automobilen esportazio handienak jaso dituena. Pandemia aurretik, Alemaniako autoek Txinako automobil salmenta osoaren %25 hartzen zuten; hau da, urtean 4 milioi auto baino zertxobait gehiago. Gaur egun, merkatu kuota erdira jaitsi zaio eta epe laburrean kopuru hori asko murriztea espero da. Era berean, Txinako automobil industriaren esportazio gaitasuna ikaragarri hazi da pandemia ostean: *Financial Times*en arabera, 2021ean, 100.000 ibilgailu inguru esportatu zituen eta, 2023 erdialderako, urteko 360.000 unitate baino gehiagora iritsi zen; hala, Alemania eta Japonia gainditu eta ekonomia lider bihurtu zen automobilen esportazioan. Gainera, Txina auto elektrikoen ekoizpenean nabarmentzen da batez ere, punta-puntako markak baititu, BYD kasu, zeina mundu mailako ibilgailu entxufagarrien saltzaile nagusia baita Teslaren gainetik.

Auto txinatarrak Txinan bertan eta Asiako hego-ekialdean arrakasta handia lortu badu ere, bere agerpena Europan apur bat atzeratuta dago. Zenbait arrazoi daude hori gertatzeko: oraindik ez da finkatu marka txinatarren kontzesionario sarerik Europan, zailtasun handiak daude ordezko piezak eta bestelako hornigai ofizialak lortzeko, etab. Bere aldetik, Europako Batzordea, Txinako automobil industriaren lehiarako gaitasunaren beldur, jada politika protekzionistak martxan jartzen hasi da. Hala, Txinatik inportatutako autoek %35 eta %45 arteko muga-zerga dute gaur egun. Auzia sinplea da: muga-zergak jarrita ere, auto txinatarrak Europakoak eta, zehazki, Alemaniakoak baino askoz ere merkeagoak dira. Nola lehiatuko da, etorkizun hurbil batean, 30.000 €-ko Volkswagen T-Roc alemaniar batek 16.500 €-ko MG ZS txinatar baten aurka?

Alemaniako industria-krisia bereziki garrantzitsua da Europako ekonomia osorako. Zehazki, automobil industriak, kontinente mailan ekoizpen eta truke-harremani dagokienez jarduera nagusia denak, 13 milioi langile enplegatzen ditu kontinente osoan. Hala ere, Alemaniako enpresa liderrek, ekoizpen kateen bidezko integrazioa dela eta, Europako automobil ekoizpena antolatzen dute. Hori dela eta, Alemaniako krisia kontinente mailako fenomeno da eta, seguruenik eragina izango du Alemaniako automobil sektorea deslokalizaturik edo azpikontraturik dagoen Europa ekialde eta hegoaldeko ekonomia batzuetan ere.

Edonola ere, gauza bat ziurra da: jarduera ekonomikoa errentagarritasunak antolatzen duen bitartean eta transakzio kapitalak oposiziorik ez duen bitartean, krisien kostuak langile masen bizkar utziko ditu Kapitalak mundu guztian zehar, are gehiago Europako desindustrializazio prozesu orokortu batean. ●



Eta orain zer?

Testua — **Pablo Ruiz**

Irudia — **Manubeltz**

Atzean utzi berri dugun hauteskunde-kanpaina bi-
ziak hauek izan ditu ezaugarri nagusi: Alemaniako
eztabaida publikoaren eskuinerazko joera-aldaketa,
Estatu Batuen esku-hartze zuzena (Musk X-en, Van-
ce Munichen), agintean zegoen gobernuak onarpen
nabarmen txikia izatea -hautetsontziek frogatu duten moduan-
eta bi urteko atzeraldi tekniko. Kanpaina horren ondoren, bo-
toen %20 lortu ditu AfD eskuin muturreko alderdiak. Die Linke
alderdiak izugarritzko arrakasta izan du gazteen artean; jendea-
ren harridurarako, botoen ia %9 eskuratu du, eta, historian lehen
aldiz, nagusitu egin da hiriburuan, Berlinen. CDU/CSUk, nahiz
eta hauteskundeak irabazi, inoiz izan dituen bigarren emaitzarik
kaskarrenak lortu ditu. Wagenknecht “faxista gorria” parlamen-
tutik kanpo geldituko da, eta Lidner FDPko liberalen liderrak bere
promesa bete eta dimititu egingo du, ez baita botoen %5 lortzera
iritsi. Datorren Alemaniako kantzilerrak AfDk inola ere ez duela
governatuko berretsi du.

Gauzak aztertzeke modu hori “gaitzetan txikienaren” aukerare-
kin lotuta dago, non gero eta maizago egiten baitute topo liberalek,
kontserbadoreek, sozialdemokratek, berdeek eta komunista ohiek.
Logikoa eta ulertzekoa da CDU/CSUk ospatu izana ez egotea es-
kuin muturraren mende gobernatzeke. Alemaniako oligarkiaren-
tzat, agertoki perfektua da CDU/CSUk koalizio gobernu SPDre-
kin osatzea, bigarren hori ahulaldian baitago, eta 1887tik inoizko
emaitzarik okerrera lortu baitu. Alemaniako Enplegu Agentziaren
arabera, herrialdeak urtean 400.000 langile atzerritar beharko di-
tu datorren hamarkadan, eta Alemania dagoeneko ez da gai behar
duen lan-indarra ekoitzi eta hari eusteko. Hauteskundeen bez-
peretan, “Balioak defendatzen ditugu” plataformak -Volkswagen,
BMW, BASF, Allianz, Deutsche Bank, ThyssenKrupp eta Merce-
des-Benzek osatzen dute- berriz adierazi zuen AfDrenganako gai-
tzespina, eta argi utzi zuen Wiedelen programaren bi zutabeak,
“berrimigrazioa” eta “Dexita”, bateraezinak direla Alemaniako
kapitalaren metaketarekin. Otsailaren 23an, Berlinen ospatu zi-
tuzten hauteskundeen emaitzak, baina batez ere Frankfurt, Eu-
ropako Banku Zentralaren egoitza den aldetik, eta baita Bruselan
ere, non Von der Leyenen II. Batzordearen burokraziak irribarre
egin zuen jakin zuenean Merz izango zela Alemaniako ordezkari
berria eta ez Scholz -Kremlinaren senide-alderdiaren barrenean,
Txinaren aldeko fakzioaren liderra da Scholz-, zeinak iragarri
baitu ez duela parte hartuko ez negoziazioetan, ezta etorkizuneko
koalizioan ere. Zalantza guztiak uxatzekoak dira Merzen adieraz-
penak: “Nire lehentasun absolutua Europa ahal bezain azkar in-
dartzera izango da, horrela, Estatu Batuengandiko independentzia
lor dezan”. Alemaniako oligarkia, bloke politiko europarraren lider
dena, zorte oneko dago.

Baina ulertezina da –edo, hobeto esanda, erridikuluaren muga dago– Europako ezkerre batera atera izana Die Linke alderdiaren emaitzak ospatzera, zer eta botoen %9 bakarrik lortuta, Alemaniako ezkerre ezdeusa den seinale. Alemaniako parlamentu berria Bigarren Mundu Gerraz geroztik egon direnetan eskuindarra da. Eskuin muturrak bikoiztu egin du bere boto kopurua, eta beren burua “langile” gisa identifikatzen duten boto-emaitzen aukerarik gustukoena da, puskaz gainera. Kapital estatubatuarren zati teknologikoak –munduko ofentsiba erreazionarioaren aitzindaria– ordezkarik fidel bat lortu du Europako kapitalismoaren bihotz ekonomikoan. Arku parlamentario osoak –edo Ordenaren Alderdiak– fronte komun bat osatzen du Israelek palestinar herriaren kontra eginiko genozidio sionista babesteko. Eta militarismoa zutabe eztabaida ezina da Estatua gidatu nahi duen edozein gobernu-programatan.

Hauteskundeak baino hamar egun lehenago, AfDren zenbait iturrik Financial Timesi jakinarazi zioten alderdiak begirada 2029an zuela jarria. Jakitun izanik hautetsontzietan babes ikaragarria jasota ere ez zela nahikoa izango, AfDren buruzagiek egunkari britainiarri azaldu zioten Herbert Kickl-en estrategia zutela inspirazio-iturri. Eskuin muturreko FPÖ alderdiaren liderrak (Austriako Askatasunaren Alderdia) Austriako hauteskundeak irabazi ditu, herrialdean urte luzez sozialdemokraten eta demokristauen koalizio-gobernuak izan ondoren. Azkenean, Kickl oposiziara bidaliko dute, ziurrenik liberalek, sozialdemokratek eta demokristauek osatuko baitute hiruko gobernuak; ordea, ezin dugu ahaztu emaitzak jasotzean demokristauek adierazi zutela prest zeudela eskuin muturreko formazioarekin gobernuak osatzeko. Hori da Weidelen eta AfDren estrategia: oposizioko indar bakarra izatea, masen nahigabea erakartzea eta alderdi tradizionalak elkarrekin ados jar daitezkeen bultzatzea. Boterera iristeko martxa luze batean dago sartua AfD.

Arku parlamentario osoak –edo Ordenaren Alderdiak– fronte komun bat osatzen du Israelek palestinar herriaren kontra eginiko genozidio sionista babesteko. Eta militarismoa zutabe eztabaida ezina da Estatua gidatu nahi duen edozein gobernu-programatan

***Proletariotza falta da, beste behin ere, hauteskunde
hauetan. Programa batek ere ez zuen proposatzen
Alemaniako Estatuaren esentzia antidemokratikoa
deuseztatzea, ezta hark blindatzen duen lan-
esplotazioko erregimena eta European gorantz
doan militarismoa deuseztatzea ere***

1989an Alemania bateratu zenetik sekula ez da hauteskunde hauetan bezain parte-hartze alturik izan, Alemaniako herritarrek auzi politikoei buruz duten interesa gero eta handiagoa den erakusle. Baina indar politiko batek ere ez zituen Alemanian bizi den proletariotzaren interesak ordezkatzen joan den otsailaren 23an. Alderdi guztiek onartu dute Estatuko auzi handiei buruz oligarkiak duen posizioa, hala nola Israel babestea, Alemaniaren posizio inperialista, mugen militarizazioa, eredu ekonomikoaren izaera esplotatzailea, langileen bizi-baldintzen atzerakada, *mini-job* direlakoak, soldaten devaluazioa, inbertsio-funtsak bizkarroi errentatzaileak izatea, kontestazio politikoaren errepresio polizial bortitza, Alemaniako industria-oligarkiak Estatuaren gidaritzan botere neurrigabe ustela izatea eta herrialdeko industria-adarreko krisiari irteera kapitalista ematea.


Proletariotza falta da, beste behin ere, hauteskunde hauetan. Programa batek ere ez zuen proposatzen Alemaniako Estatuaren esentzia antidemokratikoa deuseztatzea, ezta hark blindatzen duen lan-esplotazioko erregimena eta European gorantz doan militarismoa deuseztatzea ere. Indar politiko batek ere ez zuen asmorik langileak alderdi propio eta independente batean antolatzeke, politika profesionalaren presio-talde burokratikoetatik aldenduriko batean, zeinak gaitasuna izango bailuke gehiengoek gehiengoentzat sortutako programa bat demokratikoki adosteko.

Baina ezin gara ezkorrak izan. Eskuin muturreko gobernu baten mehatxuak baliagarria izan behar du energiaz beteriko bultzada emateko egiazko alternatiba sozialista bat eraikitzen bidean, diruaren boterearen eta errepresioaren alternatiba bat. Alderdi guztien alternatiba bat, ñabardurak ñabardura denek egiten baitute apustu langileen bizitza mendekotasun ekonomikora eta obediencia politikora murriztu dadin. Alternatiba bat gai izango dena langileak, nor bere ezaugarriekin, modu efizientean aritu daitezen elkarlanean gizarte honek premiazkoak dituen aldaketak antolatzeke. Erraldoia da Europako proletariotzak aurrean duen erronka. Politikoki aurrera egiteko esfortzu alimalekoak egin beharko ditu, eta emaitzak ez dira berehalakoan etorriko. Baina hobe da berandu inoiz ez baino. Historian, kontzientzia sozialistak eta konstantziak iraultza posible dela erakutsi dute. ●

ZEITENWENDE:
KATE MOTZEAN
LOTUTA

ITZENW

ZEITTE





VENIDI

NWWEEN

Testua — **Eneko Carrión**
Irudia — **Saioa Contreras**

Frantziako eta Alemaniako gobernuen azken inplasioek agerian uzten dute gobernantza kapitalistaren konplexutze-prozesua. Gizarte-maila zabaletan ongizatea sortzeko ezintasunak gero eta sakonagoa egiten du alderdiekiko eta instituzioekiko lehendik ere bazegoen mesfidantza eta izen txarra, eta horrek zaildu egiten du gobernu egonkorrak eta iraunkorrek eratzeko. Behin eta berriz erakutsi dute gobernariak eta instituzio-sareak ez direla eraginkorrek gaur egungo hiru erronka nagusiei aurre egitean (geldialdi ekonomikoak, tentsionamendu geopolitikoak eta krisi ekologikoak), eta horrek oso testuinguru politiko konplexua eta aldakorra sortu du. Sistemak berezkoa duen berehalako etekinaren logikak eta interes elektoralaren epe laburreko perspektibak amildegira eramanez gaitzakete. Alemania aztertzeak, bere garrantzi historikoagatik zein egungoagatik, lagundu ahal digu gaur egungo testuingurua eta horrek eduki ditzakeen ondorioak hobeto ulertzen.



Delako “Semaforo koalizioa” (SPD, Berdeak eta FDP) hautsi eta Scholzen konfiantza-mozioaren ukapenak hauteskundeak otsailaren 23ra aurreratzea ekarri du. Inkestek CDUren garaipena aurreikusten dute; aldi berean, AfDren ultraeskuinak eta Sahra Wagenknechten alderdiak gora egiten jarraitzen dute, egonezin soziala sektore ahulena seinatuz kapitalizatzekeko estrategiari esker. Baina asaldura mediatikotik haratago, zatiketa horren guztiaren kausei eta ondorio posibleei erreparatu behar diegu.



Aurreikuspen ekonomiko ezin txarragoen (%0,1eko hazkunde ekonomikoa Bundesbanken arabera, eta enpresen etengabeko porrotak) eta Ukrainako gerrak eragindako baliabide-xahutzearen eraginez, azkartzen ari dira azken hamarkadetan alderdien sostengu gisa funtzionatzen duten klase blokeen aldaketak. Aldaketa horiek joera hedatuago bat azaltzen dute, zeinetan ezkerreko gisa izendatutako alderdiak ez diren gai langile klaseko sektoreentzat politika erakargarri bat garatzeko, eta, horrela, sektore erreakzionarioen eskuetara bultzatzen dituzten pertsona horiek. Horren adibide da hogeitun urtean SPD alemaniarren %41 ordezkatzetik ozta-ozta %15 ordezkatzera pasatu dela Europako azken hauteskundeetan. Baina egungo egoera eta datozen urteotan gerta daitezkeen egoerak ulertzeko, haratago begiratu, eta Europak eta zehazki Alemaniak taula geopolitiko berrian duten zeregina aztertu eta ulertu behar dugu.

EUROPARRAK KATE MOTZEAN LOTZEA


Rob Bauer almirantea, NATOko Batzorde Militarreko burua: “Europa gerra egoera baterako prestatu behar da”. Esaldi eta irudi gutxik laburtzen dute hobeto gaur egungo testuingurua. Ukrainako gerra Europako blokea NATOren, eta hortaz, AEBren jarraibideen mende jartzeko tresna gisa funtzionatzen ari da. Horrek zalantzan ipintzen du Europaren autonomiaren eta Europa bake-indar gisa eratu izanaren erretolika hori guztia. Gero eta argiago dago Ukrainak ezin duela gerra irabazi (garaipena lurralde osoa berreskuratzea dela ulertuta, behintzat), eta ez dut nik esaten, baizik eta Mark Milleyk (AEBko Defentsarako Estatu Nagusiko burua) eta Valery Salushnyik (Ukrainako indar armatuen komandante gorenak). Eta hala eta guztiz ere, Mendebaldeak sistematikoki boikotatzen du edozein bake-akordio; AEBk sistematikoki egin dio uko segurtasunaren gaia Errusiarekin negoziatzeari. Gerra hasita zegoela, zehazki 2022ko otsailaren amaieraren eta apirilaren artean, negoziazioak egon ziren Errusiaren eta Ukrainaren artean Istanbulen, eta badirudi nolabaiteko behin-behineko bake-akordio batera iritsi zirela, Ukrainarentzako segurtasun bermea eta Errusiarentzako lurralde kontzesioak adostu zituena. Baina dena pikutara joan zen Boris Johnsonek Zelenskyri ziurtatu zionean Mendebaldearen laguntza osoa zeukala, eta horrela, gerra irabaziko zuela urtea amaitu baino lehen.

Sistemak berezkoa duen berehalako etekinaren logikak eta interes elektoralaren epe laburreko perspektibak amildegira eramán gaitzakete


AEB EUROPAN Base militar estatubatuar nagusiak Europan (2022)



BASE GEHIENEO HERRIALDEAK



TROPA GEHIENEO HERRIALDEAK



Ukrainako gerra Europako blokea NATOren, eta hortaz, AEBren jarraibideen mende jartzeko tresna gisa funtzionatzen ari da

Hortaz, gerra horri edozein preziotan eusteko interesa ez da Ukrainako ustezko subiranotasuna eta demokrazia defendatzea, baizik eta gerra hori puzzle handiago baten zati da, non Ukrainak oso rol garrantzitsua jokatzeko duen. Hori ulertzeko, azken hamarkadotan gertatutakoaren laburpen motz bat egin behar dugu. SESB desegin zenean, nazioarteko ordena berriak izan behar zituen ildo estrategikoak ezartzen hasi zen AEB, eta, hortaz, baita Europako blokeak bete behar zuen funtzioa ere. Eta ildo horien artean NATO Ekialderantz hedatzea nabarmentzen da; horretarako, Errusiaren aurkako inguratzeko militarra ezarri zuen 90eko hamarkadatik aurrera. Besteak beste, AEBk eta NATOk uko egin diote Europako segurtasunaren birplanteamendu orokor bat negoziatzeko beharraz hitz egiteari. Batzuek neurri zehatzik ez egoteari eta arauak alde bakarrez inposatzeari gerra hotzaren itxiera faltsua deitzen diote. EB oso tresna egokia izan da Erdialdeko eta Ekialdeko Europa Mendebaldean integratzeko. Horren adibide da 2024an Txekia, Estonia, Hungaria, Letonia, Lituania, Polonia, Eslovakia eta Eslovenia onartu izana. Ukraina NATO sartzeko AEBren helburu estrategikoa zen, baina Alemaniak eta Frantziak, ados bazeuden ere, onarpen baldintza batzuk ezarri zituzten. 2007an hasi ziren Ukraina NATO sartzeko akordioa ixteko negoziazioak. Nahiz eta Ukraina aliantza atlantikoan berehala integratzea nahi izan zuen AEBk; Sarkozyk eta Merkelek betoa jarri zioten proposamenari. Bazezuten Ukrainaren kasua zailagoa zela, eta, horregatik, negoziazioek eta akordioek batzuetan aurrera eta beste batzuetan atzera egiten zuten. Dena den, 2012an Ukraina EBrekin elkartzeko akordioa itxi zen, eta akordioan lankidetzaren politikoa, merkataritza askea, harmonizazio juridikoa, finantza-laguntza eta abar sartzen ziren. Prozesu horretan, Alemaniak eta zehazki Angela Merkelek funtsezko rola jokatu zuten. AEBk argi zeukan bere apustua, eta horren erakusle da Bidenek Obamaren gobernupean Ukrainako barne-politikan izan zuen inplikazioa. Hain zuzen ere, aholkulari ugari kokatu zituen instituzio politikoetan, ekonomikoetan eta militarretan.

Baina Errusia ez zegoen prest ezer egin gabe gelditzeko. 2013an Janukovitxek (Errusiaren aldeko Ukrainako presidentek) uko egin zion EBrekin bat egiteko akordioa sinatzeari, eta horrek koloreen iraultza ekarri zuen, Maidan izenekoak. Bloke Euroatlantikoak bere helburua lortu zuen, Errusiaren aldeko presidente bat paretik kendu, eta NATOren aldeko bat jartzea alegia (Ukrainako bosgarren pertsonarik aberatsena, Petro Poroxenko). Tentsioak gora egin zuen Krimea Errusiari atxiki zitzaionean eta Donbass eta Donetsk eremuak altxatu zirenean. 2014ean presidente ukrainarrak Ukraina eta EB elkartzeko akordioa sinatu zuen. Aldi berean, Minsk I eta Minsk II bake-akordioak sinatu ziren, zeinak, geroago onartu zutenaren arabera, beren burua gerrarako armatzeko denbora irabazteko antzezpenak baino ez ziren izan. 2019an, Zelenskyk hauteskundeak irabazi zituen; haren programak barne hartzen zituen botere tokiko instituzioetara deszentralizatzea, Donbasseko gatazkaren konponbide baketsua, eta beste negoziazio bat Errusiarekin. Horrenbeste hitz eder eta promesen atzean, AEBk armada ukrainarra armatzen jarraitzen zuen, NATOren aginte-egituraren pean funtzionatu ahal izan zezaten antolatzen. Estatu Batuetako gobernuak sustatutako tentsionamendu estrategiaren aurrean, Errusiak Ukrainako lurraldeari eraso eginez erantzun zuen.

Gerrak Europako gobernuak berrarmatzeko testuinguru perfektua sortzeko balio izan du, bai materialki, defentsan egindako inbertsioa asko handituta, bai ideologikoki, herritarrei zuzendutako propaganda belizista areagotuta. Horrek guztiak, era berean, Europako aginte antidemokratikoa kohesionatzeko eta nazioz gaindiko blokearen ildo nagusiak argi eta garbi ezartzeko balio izan du. Eta ia gobernu guztiek txintik atera gabe egin diote men aginduari; horrek barne-tentsioak eragin ditu zenbait herrialdeetan, Alemanian, besteak beste.



**Mendebaldeak
Ukrainako gerrari
edozein preziotan
eusteko interesa ez da
Ukrainako ustezko
subiranotasuna
eta demokrazia
defendatzea, baizik
eta gerra hori puzzle
handiago baten parte
da, non Ukrainak
oso rol garrantzitsua
jokatzen duen**

Antza, AEBk bere helburua lortu du. Aliatuen bloke trinko bat eraikitzea lortu du Errusiarekiko mendebaldeko muga, eta ez soilik arlo militarrean, baita politikoan eta ekonomikoan ere. *Friend-shoring* ereduia sustatu du, hau da, politikoki antzekoak diren herrialdeen arteko harreman ekonomikoen ereduia lehenetsi. Hornidura-kateak erregionalizatzen ari dira, eta autarkia indartu da aurkariaren blokearekiko mendekotasuna ahalik eta txikiena izateko. Nord Streamen aurkako eraso da prozesu guzti horren adibiderik argiena. Eta badirudi Europak serio hartu duela bere zeregina, Ukrainako gatazka bere gain utz dezaten onartu duela, eta, horrela, AEB bere etsai nagusian zentra daitekeela, Txinan alegia. Jarrerak gero eta argiago daude, eta horrek eragin handiak ekarri dizkio Alemaniako politikari, jarraian ikusiko dugun bezala.

EZINEZKOA ZIRUDIENA BENETAKOA DA ORAIN

Espero dut azaldutakoak lagundu izana hobeto ulertzen zer egoerari men egin behar izan dioten alderdiek, horrela baino ez baititugu ulertuko Alemaniako politikaren egungo aldaketak. Men egite horrek higitu egin ditu hauteskunde-oinarriak, eta aldaketak eragin ditu alderdien ildoetan; horrek erakusten du hauteskunde-jokoaren printzipioak trukerako txanponak baino ez direla. Geldialdi ekonomikoak biztanleak gero eta gehiago pobretzea ekarri du, eta horrek egoera ezin hobea sortu du miseria horiek guztiak sektore zaugarrienetan bilatzeko eta haiei ordainarazteko, populazio migratzailean alegia. Aldi berean, Alemaniako gobernua gero eta rol belizistagoa dauka bakezaletasuna giltzarri izan den gizarte batean, eta, horren ondorioz, alderdiek eurenak eta bost egin behar izaten dituzte hautesleak konbentzitzeko. Europako Parlamenturako ekaineko hauteskondeek lagundu egiten digute aipatzen ari naizen aldaketetako batzuk ikusten. Ematen du CDU/CSU aliantza kontserbadoreak eutsi egingo diola, eta oso litekeena da otsaileko hauteskundeak irabaztea. Hondamendia gobernuan dauden alderdiek jasango dute; SPDk, Berdeek eta FDPko liberalek. Hondamendi horrek AfDko ultraeskuinari eta Die Linke alderdiaren zatiketari, Sahra Wagenknechti, egiten die mesede. Azter ditzagun aldaketa horien kausak.

Europako gobernuak berrarmatzeko testuinguru perfektua sortzeko balio izan du Ukrainako gerrak, bai materialki, defentsan egindako inbertsioa asko handituta, bai ideologikoki, herritarrei zuzendutako propaganda belizista areagotuta

Ezkerreko alderdiek bere egin dute autoritarismoranzko joera, eta adierazi dute “arazo” horiei ezkerretik erantzun behar dietela. Alternatiba iraultzailerik gabe, ezkerrek ematen duen erantzun bakarra autoritarismoa indartzea eta agenda belizistaren aurrean men egitea da. Hori Berdeek eta SPDk ordaindu dute argi eta garbi. Garesti ordaindu dute “Europaren aldeko” jarrera izatea, hau da, erakunde antidemokratiko baten eta haren gerra-agendaren aldekoa. Berdeen kasua paradigmatikoa da. Indar politiko horrek 2021ean “armarik eta armamenturik ez gerran dauden herrialdeentzat” esaten zuen, eta, gaur egun, ordea, Ukrainara armak bidaltzea gehien babesten duen alderdia da gobernuan. Oligarkiaren zerbitzura dauden teknokraten alderdi gisa hartuak izan dira, ustez ordezkatzan duten klase sozialetik urrun. “Erdiko klasearentzako” politika egitea da ezkerreko alderdien gainbeheraren eta ultraeskuinaren gorakadaren funtsezko elementuetako bat mundu osoan. AEB aldaketa horren adibide argia da; izan ere, alderdi demokrata erdiko klase moderno, aurrerakoi eta ikasketadunen alderdi bihurtu da. Errepublikanoak, berriz, ikasketa gutxien dituzten langileen sektoreak ordezkatzan ditu. Alemaniako kasuan Die Linke dugu adibide argia, ezker post-komunista, zeinaren oinarria erdiko klase horretara mugatu den, eta horrek ekarri dio desagertzetik gertu egotea (botoen %5 baino gutxiago 2021eko hauteskundeetan). 2009an manufaktura-langileen %20 inguruk ematen zioten oraindik botoa, eta 2021ean, berriz, ozta-ozta %4k. Ezkerrek, ezarritako markoa onartzean, utzi egiten dio *establishment*aren alderdien alternatibatzat hartua izateari; horrez gain, promes faltsu ugari egiten ditu ongi-zateari eta aldaketari dagokionez, eta horrek guztiak gaitzespen handia eragiten du haren oinarriko jendearen artean



Era berean, ezkerrek immigrazioaren aurkako diskurtsoa eta praktikak bereganatu ditu, eta mekanismo autoritarioak indartu. Biztanleen artean asko handitu denez besteak beste segurtasunari eta immigrazioari buruzko kezka, alderdiek neurriak hartu behar izan dituzte hautesleak ez galtzeko. Olaf Scholz kantzilerra *Der Spiegel* aldizkariaren azalean agertu zen 2023ko urrian titular honekin: “Eskala handiko deportazioak egin behar ditugu”. Horrek argi baino argiago uzten du eskuineranzko joera. Askotan hedabideek eta alderdiek burua nahasten digute ultraeskuina datorrelako betiko mezuarekin, baina haiek dira benetako arriskua, ultraeskuinaren printzipioak eta proposamenak bere egiten baitituzte. Duela zortzi urte AfDk baino ez zuen eskatzen mugak ixtea, errefuxiatuak baztertzeko eta atzerritar “gaizkileak” deportatzeko. Orain, Scholzen gobernu “aurrerakoia” proposamen horiexek praktikan jartzen ari da. Esan dezakegu Alemaniako politika polarizatu egin dela; alde batetik, argi eta garbi gero eta eskuinerago dagoen *establishment* bat ari da eratzan, eta beste alde batetik, *establishment*aren aurkako beste bloke “erradikal” bat.

Jarrera proletario eta nazioarteko bat ez egoteak proposamen ultraeskuindarrak eta autoritarioak indartzea besterik ez du ekarri. Beste behin ere argi geratu da haiek immigrazioari buruz planteatzen duten markoa onartzeak indartu besterik ez dituela egiten erantzunik gogorrena defendatzen dutenak. Jarrera horrek bi alderdi indartu ditu: AfD eta Sahra Wagenknecht. Has gaitzen azken horrekin. Zatiketa bat egon zen Die Linken, Wagenknechtek berak egina; komunikatzeko gaitasun handiko profil erakargarria da Wagenknecht, langile klaseko sektore pobretuekin eta langabetuekin (neurri handi batean desindustrializazioaren ondorioz) enpatizatzea lortzen duena. Honela karakterizatu izan dute BSW alderdia (Bündnis Sahra Wagenknecht): “ezkerreko kontserbadorea”, “koadro leninisten alderdia, baina sozialismoaren ideiarik gabekoa” edo “herririk gabeko populismoa”. Zaila da alderdi hori deskribatzea, hauteskunde-espektroko ia alderdi guztietatik edaten baitu. Boto gehienak SPDtik eta Die Linketik jasotzen ditu, baina baita CDUtik, FDPko liberaletatik, Berdeetatik eta AfDtik ere. Horrek aldatu egiten ditu boto-emaeleen tradiziozko patroiak.

Baina ikus dezagun zer planteatzen duen, eta zeintzuk diren bere programaren ardatzak. Alde batetik, Ukrainako gerraren eta Alemaniaren finantzaketaren kontrako jarrera argia du. Alderdi horren ustez, gerra horretan baliabideak xahutzeak mugatu egiten du ekonomia kaskarra eta Estatuko erakundeak leheneratzeko gaitasuna. Horregatik, Errusiarekiko harremanak berreskuratzea proposatzen du, industriarako baliabideen iturri merkea edukitzeko. Ekonomiaren arloan, ezkerreko eredu keynestarreko errezetak proposatzen ditu. Enpresei laguntza ematea lehiakorragoak izan daitezten, *Mittelstand* izeneko enpresetan zentratuta. Enpresa txiki eta ertain horiek ditu jomugan, boto-emaeleen merkatu-nitxo handi bat baitira; izan ere, gainbeheran dagoen langile-klasearen zati bat eta zailtasun handiak dituzten jabe txikien sektore bat biltzen ditu. Argi geratzen da BSWren klasearteko apustua, ekonomikoki aurrerakoiak baina sozialki kontserbadoreak diren boto-emaeleengana jotzen baitu. Haren politikak Ongizate Estatu indartsu batera itzultzea bilatzen du, eta, horretarako, honelako proposamenak egiten ditu: ez xahutzea baliabideak gerran edota migratzaile berrien kopurua mugatzea azpiegitura nazionalak hobetu eta hedatu arte (eskolak, haurtzaindegia, osasungintza, etxebizitza eta abar).

Gainera, immigrazioa murriztearen alde egiten du, eta uste du migrazio fluxuen jatorria liberalismo ekonomikoaren logika eta globalizazioaren aldeko politikak direla; hori atzera-egite nazionalistaren aldeko apustuaren adibide argia da. Pragmatismo horrek balio izan dio bere egoera ekonomiko kaskarraren errudunaren bila dabilen sen komunarekin konektatzeko. Bitxia da, ikerketa baten arabera BSW izan baitzen Europako hauteskundeetan musulmanen artean boto gehien jaso zituen alderdia. Badirudi ezkerrek dagoeneko ez duela lehengo era berean konektatzen gutxiengo etnikoekin, eta hori herrialde askotan ikus dezakegu.

Beste alde batetik, AfDren ultraeskuina dauka, azken urteotan sendotu egin den indarra, nahiz eta gertagaitza zirudien, Alemaniako gizarteak eskuin muturraren aurkako “txertoa” zuela-eta. Bundestageko bosgarren indarra da 77 diputaturekin, presente dago lander guztietan, batean izan ezik; 2021eko hauteskundeetan bigarren indar bozkatue-na izan zen CDUren atzetik eta SPDren aurretik, eta lehen indarra izan da Turingiako eskualde-hauteskundeetan, eta bigarrena Brandenburgon eta Saxonian. Baina kontuz ibili behar da hori aztertzean, berritzea lortu duen indar bati buruz ari gara eta. Orain arte iristen ez zen gizarte-mailetara zabal-tzea lortu du; horren adibide da alderdiko presidente kidea emakumea izatea, lesbiana eta haren bikotekidea Nepaleko migratzaile bat. Hazkunde horren zergatiak, batez ere immigrazioaren gaian aurki ditzakegu. Alderdi horri botoa emateko arrazoiak honako hauek dira: immigrazioa (%46), bakea nazioarteko harremanetan (%17), gizarte-segurtasuna (%15) eta hazkunde ekonomikoa, (%12). Siria-ko gatazka zela-eta 2015ean izan zen migrazio-krisiaren kudeaketak haztegi arriskutsua sortu zuen, errefuxiatuak baliabide gutxiko udalerrietara eta langile-auzoetara iritsi baitziren. Gaur egun Ekialde Ertaineko gatazkek eta holokaustoagatiko erru historikoaren sentimenduak ahalbidetu dute islamofobia hedatzea antisemitismoaren maskararen azpian.








Beste arrazoi nagusietako bat gainbehera ekonomikoa da; izan ere, Txinaren aurrean lehiakortasuna galdu du Alemaniak, eta horrek lantegiak ixtea eta kaleratze masiboak eragin ditu herrialde osoan. Alderdi tradizionalak krisi hori kudeatzeko eraginkortasunik erakutsi ez dutenez, jendeak konponbideak beste proposamen batzuetan bilatu ditu, hala nola AfDn. Baina eremu materialetik haratago, gainbeheran dagoen potentzia europarraren ideia horrek nazionalismoa areagotzea eragin du, harrotasun nazionala zauritu izanaren ondorioz.

Gainera, kontuan hartu behar dugu herrialdean bi zati argi bereizten direla: mendebaldekoa eta ekialdekoa. Ekialdean eragin handiagoa izan du erakundeekiko eta alderdi tradizionalakiko konfiantzaren higadurak, eta horrek ultraeskuinaren hazkundera lagundu du. Harresia erori zenean jasandako asaldurak eta garai hura gogora ekartzen duten egungo antzekotasunek areagotu egiten dute diskurtso moderno, Europazale eta globalizazioaren aldekoek sortzen duten mesfidantza.

Ezin dugu ahaztu zentroa osatzen duten alderdiek (FDP, SDP, Berdeak eta CDU) sortu berria zen ultraeskuinaren kontrako borroka kulturala hasi zutela 2013an. Ultraeskuinaz ez kutsatzeko osasun hesi hori ez zen eremu parlamentura edo gobernura mugatu; aitzitik, gizarte-maila guztietara hedatu zen (hedabideak, eliza, eskolak, kirol elkarteak...). “Kampf gegen Rechts” (eskuinaren aurkako borroka) izendatutako politika horrek “antifaxismoa” Estatu doktrina bihurtu zuen. Baina espero zenaren kontrako emaitza eragin du. Asimilatutako antifaxismo horrek gaitzespen handia sortu du, batez ere antzinako AEDko (Alemaniako Errepublika Demokratikoa) toki batzuetan eta gazteen sektoreetan. Argi geratzen da, hortaz, “antifaxismo” instituzionala ez dela faxismoaren gorakadaren benetako alternatiba.

ONDORIOAK

Zeitenwende hitzak garai aldaketa esan nahi du, eta hauteskundeetako aldaketek norabide horretan zerbait adieraz badezakete ere, egungo testuinguruak iraganeko garai baten antza handiegia dauka: gerra-garaia, gero eta autoritarismo handiagoa eta gutxiengoak seinalatzea. Hala ere, gure analistresnak eguneratu eta hobetu egin behar ditugu, faxismoa eta autoritarismoa itxuraldatuta agertzen ari baitira, eta eredu berriak baitaude haiek babes-ten dituzten blokeetan. Horrela baino ez dugu lortuko eurei modu eraginkorrean aurre egitea. Dena dela, 30eko hamarkadaren aldean desberdintasun txiki bat dago. Gaur egun ez da SESB existitzen, eta komunismoa oso urrun dago masen artean aukera politiko bat izatetik. Hori bai, aldaketarako biderik azkarrena ez dira “ezkerreko” alderdi horiek (gero eta eskuinerago daudenak) pragmatismoaren izenean eta irtenbide utopikoen eta maximalisten aurka saltzen dizkiguten berehalako erreformak. Biderik azkarrena lehen lerrora urrats bat ematea da, zalantzarik egin gabe, eta benetan iraultzaile den alternatiba hori eraikitzeke gure indar guztia ematea. Geuk egiten ez badugu, erreakzioak egingo du, eta larrutik ordainduko dugu. ●



INDUSTRIA ITXIERAK ETA SINDIKALISMOA

Testua — **Lander Lejarza**

Irudia — **Iker Orueta**





Kaleratzeen, industria itxieren eta deslokalizazioen berri ugari izanda azken hilabeteetan Europan, eta automobilgintzaren sektoreak ezin hobeto irudikatzen du kontinente zaharrak bizi duen krisi industrialia. Gaur Alemanian eta Frantzian hartzen diren enpresa erabakiek zehaztuko dute Europako gainerako herrialdeetako auto ekoizpena, gure lurraldekoa barne. Eta industria itxieren prozesu guztietan hainbat paralelismo ikus daitezkeenez, sektore hori erabiliko dugu adibide gisa egoeraren azterketa egiteko.

Automobilgintzak EBko enpleguaren %6 hartu eta BPGaren %8 sortzen du, eta nabarmena da produktibitate handia duela beste sektore batzuekin alderatuta. Horri esker, diru fluxu eta esportazio handiak lor daitezke, eta agerikoa da horiek gabe Europa merkataritza defizit larrian sartuko litzatekeela. Baina motorraren industriaren gainbehera hasia dago jada, are gehiago sakonduko du Ongizate Estatuaren desegitean eta bete-betean kolpatuko du langile klasea.

Hemen ez dira zehaztuko automobilgintza gure kontinentean maldan behera eta balaztarik gabe joatearen arrazoiak. Aitzitik, deriba horretan parte hartzen duten gidarien eta bidaiarien azterketa labur bat egiten saiatuko gara, bai eta lantegiak ixteko prozesuetan bloke sindikalek duten funtsezko papera aztertzen ere. Horretarako, gainbehera horren kasu paradigmaticoenetik abiatuko gara zuzenean, Volkswagenean kasutik.

VOLKSWAGEN KASUA

Volkswagenek, Alemanian langile gehien dituen enpresak, ezin hobeto islatzen du Europako motorraren testuingurua, non klase borrokaren taulako piezak argi eta garbi aurkezten diren. Mugarri izango den gatazka honetan, hiru subjektu nagusik parte hartzen dute, etorkizun industrialak erabakiko dutenak: kapital finantzarioak gidatutako burgesiak, sindikatu burokratiko hegemonikoak eta langile mugimenduak.


2024ko irailean, enpresak mehatxu egin zuen soldatak %10 murriztuko zituela, bai eta kaleratze masiboak egin, hitzarmen kolektiboak ezabatu, eta, 87 urtean lehen aldiz, Alemanian lantegiak itxi ere. Kapital finantzarioaren *swingak* Golfaren ekoizpena Mexikora bidaltzearekin mehatxatu zuen, eta, lehiakortasun falta argudiatuz eta irabaziak handitzeko, kaleratzeak eta itxierak gauzatzearekin.

Langileen lehenengo erantzuna

Itxiera mehatxuak zabaldu zirenean, langileek berehala erantzun zuten. Klase elkartasunak aurreikuspen oro gainditu zuen, eta herrialde osoetik zetozen mezuek duindu egiten zuten langileen ziurgabetasun egoera. Elkartasuna berehala hedatu zen tokiko senide eta lagunen artean, baina beste enpresa batzuetako lankideengandik ere etorri zen, hala nola Daimler (Mercedes), Thyssenkrupp eta Siemensetik, laguntza eta lankidetzak eskaini baitzuten: "Elkartasun ekintzak egiteko konpromisoa hartzen dugu. "Zer behar duzue?" zioen Daimlerreko lankide batek.

Klase kontzientzia zabaltzen hasia zen lantegietan. Daimler Truck Wörth-eko enpresa batzordeak elkartasuna adierazi zuen: "Eraso egin dizuete, baina denoi egiten digute eraso. (...) prest gaude herrialde osoan greba egiteko!". Thyssenkruppeko langile batek honela zioen: "Inoiz ez dut bizi izan orain jasotzen ari garen tratua antzekorik. Gure aurkako erasora pasatzen ari dira; guk gauza bera egin behar dugu".

Volkswageneko langileek ekimen independente ugariarekin erantzun zuten, eta, abenduaren 2an, 100 mila langileko ohartarazpen greba bat egin zuten, jendearen borrokarako borondatea plazaratzeko. Bien bitartean, patronalaren eta enpresa batzordearen arteko negoziazioak atek itxitako bileretan ebazten ari ziren, eta langile klasea erretagordian geratu zen, ordezkariek negoziatzen zutenaren zain.



**Motorraren
industriaren gainbehera
hasia dago jada, are
gehiago sakonduko du
Ongizate Estatuaren
desegitean eta bete-
betean kolpatuko
du langile klasea**

Determinazio burgesa

Baina etekinak bilatzeko eta lan-indarraren esplotazioa areagotzeko logika burgesa zurruna da. Hori lege da kapitalismoan. Beraz, burgesiaren diziplina ere irmoa da irabazi handiena bermatuko duten beharrezko politikak aurrera ateratzera begira. Adierazpen politiko desberdinen zein burgesen arteko lehiaren gainera, arrazionaltasun hori gailendu egiten da azkenean.

VWen kasuan, aldebakartasun hori ordezkatzeko duen eragilea nazioarteko kapital finantzarioa da. Automobil taldeak Porsche SE zorro sozietatearen %32ko partaidetza du, inbertsio funts handien eta bankuen %26ko partaidetza, Qatarko inbertsio funts subiranoaren %14koa, akzio pribatuen %13koa, eta Saxonia Behereko landerraren %12koa. Akziodun horiek, bai eta finantza merkatuek zaindutako enpresaren zor handi batek ere, aktiboki zaintzen dute gau eta egun irabazia handitzea, eta krisi garaian berregituraketa neurriak ezartzen dituzte.

Ildo horretan jardun zuen zuzendaritzak, kapital finantzarioaren jarraibideen berrero. Abenduaren amaieran, hau adostu zuen sindikatuekin: 2030erako 35.000 lanpostu ezabatzea –hori bai, modu “sozialki arduratsuan”–, soldatak 5 urtez izoztea –inflazio testuinguru betean–, zenbait hobari eta 1.200 euroko opor ordainsaria kentzea eta 2025 eta 2027 bitartean bi lantegitako ekoizpena etetea, berriro hartzeko perspektiba handirik gabe. Horrek esan nahi du, 5 urte baino gutxiagoan, gaur egungo 4 enplegu eta fabrikatutako 4 autoetatik 1 baino gehiago kenduko direla.

Hori guztia ez da modu trakets eta baldarrean egin, hotz-hotzean kalkulatuta baizik. Langileen batasuna haustea zuten helburu, eta, horretarako, kaleratzean hobekuntzak eskaini zizkieten esperientzia eta ezarpen handiena zuten enplegatuei, haiek sindikalki indargabatzeko; ekoizpen instalazioen –eta langileen– arteko lehia handitu zuten auto modelo berrietara baliabideak nola esleitu erabakitzeke; eta ikusezin bilakatu zuten industria hornitzaileetako eta osagarrietako langile guztien etorkizuna. Langile batek adierazi zuen bezala, “elkartasunean batuta egon beharrean, elkarren aurka jartzen ari dira langileak”.


Langile batek adierazi zuen bezala, "elkartasunean batuta egon beharrean, elkarren aurka jartzen ari dira langileak"

Bitartean, politikari profesionalen zeregina, Estatu kapitalista kolektiboaren kudeatzaile diren aldetik, metatze baldintzak ziurtatzea zen nahitaez. Baldintza horiek Kapitalaren eta lan indarraren erreproduktzioa bermatu behar zuten, metaketa iraunkorra ahalbidetuko zuen “bake sozialeko” giro batean. Scholz Alemaniako kantzilerraren adierazpenak argiak izan ziren: “Kontua da denok elkartuta egotea nahiz eta garai zailak izan, lankidetzaren soziala eredu izatea etorkizuna elkarrekin irabazteko; ez jardutea bata bestearen aurka, baizik eta elkarlanean”. Benetako xedea langileen borroka minimizatzea zen, are gehiago hauteskunde orokorren atarian egonda. Jakina, haien arabera, akordioa albeste bikaina izan zen.

Burokrazia sindikalaren kogestioa

Baina itun bat gutxienez bi alderen arteko akordioa da, eta langileria antolatua ez zegoen erabakitze mahaian. Sinatzaileen beste alde IG Metall sindikatuko goi karguek osatzen zuten; Alemaniako sindikaturik handiena da, bi milioi afiliatu baino gehiagorekin.

Alemaniako kogestio sistemak (*Mitbestimmung*) ikuskaritza-batzordean langile ordezkariak izatera behartzen ditu 500 langile baino gehiago dituzten enpresa guztiak. Batzorde horren ardura da zuzendaritza batzordearen ebazpenak gainbegiratzea eta erabaki estrategiko garrantzitsuak berrestea, hala nola inbertsioak, lantegien itxierak edo kaleratzeak. Kogestio legearen helburua da, teoriarik, langileen eta enpresaburuen arteko lankidetzaren sustatzea, lan harremanak hobetzea eta industria gatazkak murriztea.



Alderdi politikoek eta kapital finantzarioak kosta ahala kosta saihestu nahi zuten proletario industrialaren nukleo handi baten greba handi bat hauteskunde kanpaina betean

IG Metalleko eliteek negoziazioaren gidaritza hartu zuten, eta zuzendaritzarekin eseri ziren akordio bat lortzeko. Volkswagenek proposatutako lantegien itxieren eta nahitaezko kaleratzeen aurrean, “Gabonetako mirari” izendatu zutena onartu zuten. Akordio horri esker, ez omen dira lantegiak itxiko, eta autoen ekoizpena %30 bakarrik murriztuko da, nahiz eta hainbat lantegiren etorkizuna erabateko ziurgabetasunean utzi horrek. Era berean, ez da nahitaezko kaleratzerik egongo, “sozialki onargarriak” diren 35 mila kaleratze baino ez. Gerentzia atsekabetuta egongo da, noski.

Sarkasmoa aparte, langileek prentsaren bidez izan zuten akordioaren berri. Informazio kanalak hautsita zeuden, eta delegazioa bera ezabatua izan zen: ordezkaririk gabe, bozketarik gabe, ikuskapenik gabe.

Ez zen ustekabekoa izan, ezta ere, negoziazioak abenduaren 20an amaitzea, ostiralarekin, Gabonetako oporren aurretik, hain zuzen ere langileen antolakuntza neurri handi batean geldirik geratzen den unean. Argi dagoena da alderdi politikoek eta kapital finantzarioak kosta ahala kosta saihestu nahi zutela proletario industrialaren nukleo baten greba zabal bat hauteskunde kanpaina betean. Langileen erantzuna oraindik ikusteko dago, baina hasierako sentsazioa kontraesankorra da VWeko langileen artean, eta haserrearena, berriz, enpresa osagarrietako langileen artean.

Nagusi den eredu hegemoniko sindikala dela-eta gertatu da hori: negoziazioa lehenesten da konfrontazioaren aurretik

SINDIKALISMOA ETA POLITIKA: HARREMAN ESTRATEGIKO BAT

Sindikalismoa aldatu egin da garaia, lurraldearen, erregimen politikoaren edo kapitalismoaren garapen egoeraren arabera. Langile borroka desberdina izan da —kuantitatiboki eta kualitatiboki— hedapen kapitalistako momentuetan eta itxiera, deslokalizazio eta erreakzio orokorreko garaietan.

Azken testuinguru horretan, IG Metalleko burkraziaren funtzio politikoak itun interklasista ixtea izan da: kapital finantzarioaren aginduak apaintzea, langileen eztanda saihesteko. Funtsean, produkzioaren murrizketa, deslokalizazioa eta soldaten jaitsiera orokorra onartu dira. Obedientzia eresia dela esan liteke, baina, egia esan, zeren truke galdetu beharko litzateke. Horrela, Alemaniako kogestio ereduak Kapitalaren erabaki estrategikoetan lankidetzan aritzea erraztu du, ikuspegi defentsibo batetik, konfrontazioa murrizteko asmo nabarmenarekin.

Klase arteko norgehiagoka lausotu egin da, baina,aldi berean, langile klasearen barruan areagotu egin da konfrontazio hori. Izan ere, Volkswageneko langileei kaleratze baldintzetan eskaintako hobe-kuntzek, ekoizpena nabarmen murrizteko helburua dutenek, enpresa hornitzaileetako gainerako langile guztiak jokozen kanpo uztea dakarte, eta, ezinbestean, kaleratze eta itxiera gehiago egongo dira enpresa horietan. Eta ez dira gutxi. Bartzelonako Nissan itxi zutenean plazaratu zen bezala, Nissane ko soldatapeko bakoitzeko ia 10 langile kaltetu zeuden inguruko enpresetan. Langileek argi dute zer dakarren VWen 35 mila kaleratze sinatzeak eta ekoizpena murrizteak: “Ez al da hori pixkanaka hiltzea?” galdetzen dute. Eta beste garai bateko langileekin konparatzen dute beren burua: “Gauza bera gertatu zen ikatz-industriako meatzariekin. Erretiro aurreratuek (...) saminez erosiak”. Izan zitezkeen *Los lunes al sol* filmean Santa pertsonaiak esandako hitzak, gu industria-birmoldaketaren itxiera garaietara eramango gintuzketenak.

Baina, batez ere, badirudi langileak antolatze eta gogor erantzuteko potentziala ito dela. Nagusi den eredu hegemoniko sindikala dela-eta gertatu da hori: negoziazioa lehenesten da konfrontazioaren aurretik. Borroka bera funtzionala da negoziazio mahaian posizioak hobetzen dituen heinean; negoziazioaren aurretik, partzialki eta modu kontrolatuan soilik aktibatzen da borroka. Sindikatuen egiturak printzipio zurrune horiek barneratzen ditu, eta antolaketa independente oro bazterten du: komunikazio kanalak suntsitzen dira, marko lokalak edukiz hustu, barne demokrazia ezabatu eta sindikatua bitan banatzen da, burokraten zuzendaritza baten eta zain dagoen langile masa baten artean. Borrokarako baldintzak gatazkaren hasieran baino okerragoak dira orain; elite sindikalak bete du bere zeregina.

Baina ez dira itxialdiak eta kaleratzeak bakarrik onartu: zurrumurruek diotenez, zenbait auto fabrika, Karmanneko kasu, birmoldatu eta armagintza industriara pasatu litezke. Izan ere, Europaren etorkizun industrialak ez dago kontsumo, bitarteko eta kapital ondasunen mende soilik. Gastu publiko militarren gorakada dela eta, industria sektore tradizionalak armagintza ekoizpena jotzen ari dira: industria, gaur, gero eta gehiago da industria militarra.

Sindikatu nagusiek zeresan handia izango dute gerra-testuinguru berri —zahar— honetan. Paralelismo baldarretan erori gabe, 1914ko abuztuaren 2an, sindikatuek eta enpresaburuek grebak eta itxiera patronalak debekatzea adostu zuten, eta hitzarmen kolektiboak luzatu eta gerrarako produkzioa martxan mantendu zuten. Sindikatuak funtsezko eragileak izan ziren SPDk Lehen Mundu Gerran izan zuen jarrera belikoa zehazteko, eta eragin handia izan zuen alderdi politikoan, afiliazioan bikoiztu egiten baitzuten eta diru sarrera 50 aldiz handiagoak baitzituzten. Beraz, itun interklasistaren subjektu kohesionatzailea bihurtu ziren, sozialdemokraziari jarrera berritua eskaintzen baitzioten langile antolatuen aurrean; eta gaur egun, igaldi beliko betean, zenbait paralelismo ikus daitezke egoera harekin.



Industria, gaur, gero eta gehiago da industria militarra

Aldi berean, berriro ere esparru laboralean beren burua aurkezteko, gerra eta erreazio testu-
guru hau aprobetxatu dute agente berri -zahar-
batzuek: sindikatu faxistek. Langile aristokrazia
ekonomikoki bideragarria eta politikoki beharrez-
koa ez den une honetan, burgesiak aukera iraultzai-
leak neutralizatu behar ditu, eta langile industrial
proletarizatuen masak krisiaren irteera autoritario
batean kokatu.

Alemaniantzako Alternatibak (AfD) botoen
%12,9 lortu zituen 2017ko hauteskunde orokorre-
tan, baina %15 industriako langileen artean. Orain-
goz lan esparruan eragile nagusi ez diren arren,
Zentrum Automobil sindikatu faxista Mercedes,
BMW eta Porscheren hainbat lantegitara hedatu
da, eta ordezkartzaren %10era iritsi da. Hasiera
batean klase borrokaren beraren aurkako diskur-
tsoa erabiltzen bazuten ere, 2015etik aurrera “goi-
koak eta behekoak” diskurtso populista erabiltzen
hasi ziren: goian, “sindikatu monopolisten” koges-
tioa; behean, langile arruntak, alde batera utziak.
“Saldutako sindikatuak” aipatu dituzte erantzule
gisa, eta, horrela, lan gatazkak hutsaldu, beste etsai
bat izendatu eta ekuaziotik atera dute klase borro-
ka. Azken helburua argia da: etsaiz nahastea klase
gizartea sendotzeko.

Lan arloan erretorika faxista klasikoagoarekin
ere esku hartzen dute: eliteen eta globalizazioaren
aurkako diskurtsoa zabaldu eta langile migratzaile
eta zaurgarrienak seinatzen dituzte. Hori guztia
ikuspegi ultranazionalista eta obrerista batetik.
Horrela, burgesia zuritu eta langilerik ahulenak
kriminalizatzen dituzte, bai eta militanteak anti-
komunismo amorratu batekin lerrotatu ere, lan-
gile klasea modu independentean antolatuko duen
aukera iraultzaile oro neutralizatzeko. Hala iru-
dikatu zuten, adibidez, Maiatzaren Lehen batean
“ALARM!” izeneko sindikatu faxistaren aurkezpe-
nean. Bertan, AfDren urdina eta SA nazien kape-
la gogorarazten zuena zeraman gizon batek langi-
le mugimenduaren gorriaren gainean margotzen
zuen, jokabide konfrontatibo gisa. Azken finean,
ardi larruz jantzita ere, otsoa beti otso.



Langile mugimenduaren independentzia politikoa

Langile mugimenduak, modu atomizatuan eta koordinatu gabean bada ere, proposamen eta ekintza zehatzekin erantzun du; izan ere, diziplina burgesaren logika hautsezina bada ere, neurriak hautsi daitezke, eta, azkenean, klase borrokaren zelai politikoan ebazten dira beti.

Hainbat kanaletan, elkarrizketetan eta batzarretan langileek grebara joateko baldintza egokiak daudela azpimarratu dute: Volkswagenek milaika milioiko irabaziekin amaitu du 2024, itxi nahi diren lantegien ekoizpenari esker, hain justu. Eta enpresa osoko greba bat erraz asko zabaldu daiteke hornidura kate osoan zehar beste enpresetara, ekoizpen loturak direla eta. Ikusteko legoke ea burgesiak aurre egin ote liezaiokeen etekinen kolapso eta greba industrial masibo bati krisi instituzional baten testuinguruan.

Grebarekin batera –tresna sindikal nagusia–, beste aukera batzuk ere entzuten dira, hala nola lantegien okupazioa eta gizarte esferaren implikazioa. Batzuek Ford Bochumek 2004an izandako esperientzia gogoratzen dute; izan ere, fabrika berehala ixteko mehatxupean, aldi baterako okupazioarekin erantzun zuten langileek, eta lantegiak beste 10 urtez ekoizten jarraitzea lortu zuten. 2004ko borrokek aurrekari bat jarri zuten ideia sindikaletan, langileek beraiek bultzatu eta kontrolatu zuten borrokari esker. Hala eskatzen dute gaur egun ere langileek: “Borrokatu IG Metallekin, baina hartu borrokaren kontrola zure eskuetan.”

Hala ere, gehien errepikatzen diren proposamenak antolakuntza eta ekintza batasunera bideratutakoak dira, enpresa desberdinetako langileak batzekoak; alegia, klase batasunera bideratutakoak. Burgesiak VWeko langileen kaleratze baldintzak hobetu nahi ditu epe ertain eta luzean ekoizpena murriztuko dela ziurtatzeko, eta horrek babesik gabe uzten ditu inguruko enpresetako ehunka mila langile, langileria zatitu eta langileak aurrez aurre jartzen baititu. Horregatik, besteak beste ZF eta Thyssenkrupp multinazional hornitzaileetan greba sektorialerako deia egiten da zuzenean, Volkswagenean berregituraketa planen aurka.

Hori izan behar da langileria industrial antolatuaren funtsezko puntu taktikoa horrelako mailakako itxieren aurrean: hornidura kate osoko kaleratze masiboak eta itxierak baztertu behar ditu. Burgesiak modu bateratuan eta koordinatuan jokatzen badu, aurre egiteko modu bakarra langile klasearen batasuna sendotzea da, eta, beraz, erakunde iraultzaile oren hedapan taktikoa langile guztien

koordinazioan eta taldekatzean oinarritu behar da, eta interes komunak bermatu behar ditu epe laburrean eta luzean. Klase batasun hori sendotzeak aukera ematen du etorkizuneko borroketarako posizioak irabazteko –borroka horiek zalantzarik gabe iritsiko baitira–, praktika lokalistak gaintzitzeko, eta gatazken pertzepzio zabalagoa eta egiturazkoagoa garatzeko. Azken finean, sindikatuen lan hutsetik haratago klase kontzientzia sortzeko oinarriak ezartzen ditu.

Egungo itxiera prozesuei erantzuteko, beharrezkoa da lehentasunezko bi gairen politika eguneratzea. Alde batetik, langileen nazioarteko antolaketa itxieren eta deslokalizazioen aurrean. Dagoeneko agertu dira lehen kasuak adibidez Amazon edo Ryanair multinazionaletan, non grebak estatuko muge-tatik haratago koordinatu diren, grebaren exekuzioa eraginkorrago izateko. Lan zaila izan arren, lehentasunezkoa da, hori baita burgesiaren egungo antolaketa eskalari aurre egiteko modu bakarra.

Bestalde, testuinguru belikoaren aurrean, langileen erantzuna eguneratu behar da. Egoera hau ez zaigu erabat arrotza, ez baita lehen aldia industria militarren garrantzia modu esponentzian handitzen dena. Praktika internazionalista indartu behar da, era guztietako gerra adierazpenen aurka langileen borroka areagotuz, baita sektore industrialean eta logistikoan ere. “Kontrairaultzaren esparrua ere iraultzailea da”, dio Marxek. Borroka mekanismoak ez zaizkigu falta, joan den mendeak erakutsi zigun hori.

Politika horiek guztiak, sindikatuen lanetik haratago doazenak, masa-alderdi komunistaren bidez baino ezin dira gauzatu. Alderdi komunistak programa kritiko bat behar du, errealitate osoaren mailan egongo dena, proletariotzarekin konektatuko duena, eta bere berehalako interesak ikuspegi orokor bateratzaile batekin lotuko dituen, klase independentzia antolatuz. Krisi sistemikoak klase sozialen arteko lankidetzaz zailtzen duen momentuan, langile borrokek bidea irekiko du, baina beharrezkoa da ekimen espontaneo politikoki antolatzea. Gure alternatiba bakarra bete-betean konprometitzea da, pauso labur eta begirada luzearekin, alderdi komunistaren eredu eguneratzeko, baita esparru laboralean ere. ●

BIBLIOGRAFIA

Bosch Alessio, Constanza Daniela eta Gaido, Daniel (2012). *El marxismo y la burocracia sindical. La experiencia alemana (1898-1920)*.

Argitalpena
2024KO OTSAILA
EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa
eta diseinua
**GEDAR LANGILE
KAZETA**

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER ETA
INSTAGRAM
@ARTEKA_GEDAR

Kontaktua
**HARREMANAK@
GEDAR.EUS**

Harpidetza
**GEDAR.EUS/
HARPIDETZA**

Edizioa
**ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA**
AZPEITIA

Lege gordailua
SS-01360-2019

ISSN
2792-4548

Lizentzia





arteka

